




FUTBOL DERBYA: UDA-MONDRA, AURREZ AURRE BERRIRO ERE

Arrasate

P R E S S

1996ko
abenduak 20
345. zenb.



Santamasak

Gabonen atarian

Gehigarria
**KAFERAKO
KANTAK**


**Urte barri-barri
txarri-belarri
daukanak
ez daukanari
kolkua bete
madari!**

Zuen zerbitzura



ARRASATEKO UDALA

Santamasak 96



Xabier Zubizarreta
Arrasateko Alkatea

*Urtean urteko
aldian aldiko
zaharrak beteko
gosea aseko
berria hasiko
ez bait zen betiko
dakigun aldeko
urtean urteko*



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate)
Komunikabideak) Azoka kalea, 1
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnua: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala, **Zuzendaria:** Behar-
do Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubiri-
llaga, Maider Egües. **Publizatzaia:** Alberto Garro, Kai-
tlin Allende (Tfnua: 77 08 15). **Administrazioa:** Iker-
ne Altube (Tfnua: 77 08 15). **Diseinua:** Goio Arana.
Kolaboratzaileak: Ander Elveberria, Marta del Cam-
po, Iban del Campo, Ixaro Artola, Rosa Mondragon,
Bixente Azkarate, Joverra Agirreumeta, Juan Luis Azka-
rate, Aitor Orobenegoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria
Saila, ASA Taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besai-
de M. E., Karmelo Urbarren, Fidel Bereizbar, Bixente
Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Ago-
rria, Jose Mari Astigarra, Jesus Larrañaga, Matilde
Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez,
Kopi, Jon Ozaeta, Birginia Urkiola, Jabi Luengo. **Bana-
keta arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tfnua:
77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200.
Logo-Gordailua: 112498. **ISBN:** 0214-4654. Frankeo
kontzertatua. **Inprimategia:** Gerfu Koop. E. (Zubilla-
ga, Oñati).
**ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik.**

ARRASATE PRESS paper
birziklatuan egiten da.

Azaloko ilustrazioak: Kopi.



Arrasateko Udaleren
laguntza



Gipuzkoako Foru
Aldundiaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako
Kultur
Sailearen laguntza

345. zenbaki honetan

1996ko abenduaren 20an

Asteko agenda.....	4/5	Txutxumtxuak.....	15/16	Lapiko handia	30
Inkesta.....	7	Asteko gaia	19/21	Azoka plaza	37/38
Asteko errepasoa.....	8	Kirolak jokoan	22/26	Ikusi eta entzun ..	44/45
Orain eta hemen ..	11/12	Kulturaren txokoa.	28/29	Fotozaharra	46

Agurra

Xabier Zubizarreta.....3

Hogeita hamar galderatan

Anuska Ezkurra.....33

Aurrez aurre

Benito Lertxundi.....26/27

Gehigarria

Kaferako kantak.....41-43

Asteko gaia

Aspaldiko partez...

derby-a!.....17/19



**Abenduaren
24an,
arratsaldeko
4etan,
UDA-Mondra
Atxabaftan.**

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 20**
 • 10ak arte: Morales, San Andres.
 • Egunez eta gauzez: Guallar, Bergara
- Larunbata 21**
 • 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
 • Egunez eta gauzez: Guallar, Bergara.
- Igandea 22**
 • 10ak arte: Español, Iturriotz.
 • Egunez eta gauzez: Estella, Bergara
- Astelehena 23**
 • 10ak arte: Corcuera, Musakola.
 • Egunez eta gauzez: Mozos, Bergara.
- Astearte 24**
 • 10ak arte: Irizar, Erguin.
 • Egunez eta gauzez: Camacho, Bergara
- Asteazkena 25**
 • 10ak arte: Amezua, Santamaina.
 • Egunez eta gauzez: Puy, Bergara.
- Osteguna 26**
 • 10ak arte: Ruiz, Maala.
 • Egunez eta gauzez: Guallar, Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualatorria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 76 62 91
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 77 03 46
 • Espezialitateak 77 05 78
 77 12 64
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 79 12 22
 PESA 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
 KIUB-OMIC 79 51 55
- Monterongo liburutegia**
 Monterra 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 79 58 77

20 ostirala

21 larunbata

■ ZINEA

Mis dobles, mimujer yyo,
 Alai Zineman 7etan eta 9.30etan.

■ AITORTZA

Arratsaldeko 7etan Santamainan aitortza komunitarioa.

■ BENITO LERTXUNDI

Anaitz Taldearen eta Benito Lertxundiren kantaldia gaueko 10.30etan Amaia Antzokian. Aurrez sarrerak salgai Biona, Kajoi eta Hiren 800 ptatan, takilan 1000 pta.

■ EGUERRI KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko Eguerri Kontzertua San Franzisko elizan arratsaldeko 7.45etan.

■ ZINEA

Mis dobles, mi mujer yyo,
 Alai Zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ XAKE TXAPELKETA

Egun osoan zehar Musakolako kiroledegian VIII. Santamas Xake Txapelketa.

■ IGERI TXAPELKETA

Goizeko 10etan Musakolako kiroledegian.

■ PAILAZOAK

Kiki, Moko eta Flax pailazoak Herriko Plazan goizeko 11.30etan.

■ SARI BANAKETA

Eguerdiko 12etan eskarate lehiaketaren sari banaketa.

■ RUGBY PARTIDUA

Rugby partidua Juan Garai eta Haritz Etxebarriaren oroimenez Garagartzan arratsaldeko 3.30etan.

■ LIBURU ETA DISKO AZOKA

Euskal Liburu eta Disko Azoka zabalduko da Sebero Altube plazan arratsaldeko 5.30etan. 24ra arte egongo da zabalik.

■ DISKOAREN AURKEZPENA

Juan Carlos Irizarren "Natura" diskoaren aurkezpene eta Gaztelumendi abesbatzaren ekitaldia Aita Menni ospitalean arratsaldeko 5etan.

■ KALEJIRA

Etxafleroak, Arrasateko Kiliki eta Erraldoiak, Gaite-roak eta Mondragon Brass Gaztea kalejiran erdialan arratsaldeko 7etan.

■ TXERRIAREN AURKEZPENA

Santamasetako txerriaren aurkezpene eta txartelen salmenta arratsaldeko 7etan.

■ AHTren KALEJIRA

Abiadura Handiko Trenaren aurkako asanbladak antolatuta, 7etatik aurrera kalejira trikitalariekin eta AHTren aurkako parodia.

■ TXARANGA ETA TRIKITILARIAK

Incansables txarangarekin kalejira arratsaldeko 7.30etan. Ordu berean Arrasateko trikitalariekin kalejira.

■ KONTZERTUA

Ametsa Abesbatza eta Argentinako Kari Pampa taldearen Meza Criolloa Amaia antzokian arratsaldeko 8etan. Sarrera: 1.000 pta.


■ DANTZALDIA

Dantzaldia Trabuko musika taldearekin Herriko Plazan gaueko 11etan.

■ ZEZEN SUZKOA

Zezen suzkoa Herriko Plazan gaueko 12etan.

Santamasetako Xake Txapelketaren 8. edizioa larunbatan Musakolako kiroledegia.



22

igandea

■ ZINEA

Mis dobles, mi mujer y yo, Alai Zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ GAITEROAK

Gaiteroekin eta txistulariekin Diana goizeko 9.30etan.

■ SANTAMAS AZOKA

Fruitu, barazki, kapoi eta Euskal Herrian eskuz egindako gazten lehiaketa, erakusketa eta salmenta azokan goizeko 10etatik aurrera.

■ FERIA

Nekazaritza Tresneriaren Feria Zaldibar inguruan goizeko 10etan.

■ ARTISAU LANGINTZA

Artisau Langintzen Jarduera erakusketa Iokin Zaitegi plazan goizeko 10.30etan.

■ KALEJIRA

Arrasateko Txikitxu-Arrostaitz Dantza Taldea, gaiteroak, txistulariak, trikitilariak, koplariak, Iturengo Tuntturroak eta Incansables txaranga kalejira goizeko 11etan.

■ SARI BANAKETA

Fruitu, barazki, kapoi eta gazta lehiaketen sari banaketa azokan goizeko 11.30etan.

■ MUSIKA BANDA

Arrasate Musikaleko Bandaren kalejira goizeko 12etan.

■ KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua Herriko Plazan eguerdiko 12.30etan. Egitaraua: Euskal Dantzak: Arra-

ti-Artzai Irustotza, Irustotz-Otsana, Liraña, Iru Neskatile, Triskantza. Zuzendaria: Eduardo Arzamendi.

■ HERRI-KIROLAK

Santamas Aizkolari Txapelketa Zaldibarren eguerdiko 12.30etan. Arrospide, Olasagasti, Larretxea eta Peñagarikano. Ordubatean harri-jasotzaileen erakusketa: Perurena eta Saralegi.

■ TXALAPARTA

Txalaparta saioa Herriko Plazan eguerdiko ordubatean.

■ SAIO BEREZIA

Arrasateko folklore taldeen saio berezia Herriko Plazan eguerdiko ordubatean.

■ HERRI-BAZKARIA

Herri-bazkaria Musakolako kiroldegian arratsaldeko 2.30etan txaranga, bertsolari eta trikitilariekin. Bazkarirako txartelak AEDn, Hiren, Bionan eta Monte tabernan salgai 1.000 ptatan.

■ SANTAMAS DANTZAK

Larrain Dantza eta Txerri Dantza Herriko Plazan arratsaldeko 7etan.

■ TXARANGA

Incansables txarangarekin kalejira arratsaldeko 7.30etan.

■ BERTSO SAIOA

Bertso saioa Lizaso, Egaña, Peñagarikano, Irazu, Mendiluze eta Jon Sarasuarekin. Gai jartzailea: Danel Goikolea. Amaia antzokian arratsaldeko 7.30etan.

■ DANTZALDIA

Maixa eta Itziar taldearekin dantzaldia Herriko Plazan gaueko 11etan.

■ TXERRIAREN ZOZKETA

Txerriaren zozketa Herriko Plazan gaueko 12etan.

23

astelehena

■ ZINEA

Mis dobles, mi mujer y yo, Alai Zineman 7etan eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.

■ IPUIN KONTAKETA

10 urte inguruko haurrentzat ipuin kontaketa ludotekan arratsaldeko 5etan.

■ KONTZERTUA

Leioako Kontserbatorioko Orkestra eta abesbatza Amaia antzokian arratsaldeko 7.30etan. Sarrera 500 pta., Arrasate Musikaleko bazki-deak dohain.

24

asteartea

■ TXORONPIO

Txoronpio eta Txoronpiaren irteera eguerdiko 12etan. Herrian zehar ibiliko dira gutunak jasotzen.

■ IPUIN KONTAKETA

6-8 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontaketa arratsaldeko 4etan ludotekan.

■ OLENTZERO

Olentzeroren irteera arratsaldeko 6etan. Ibilbidea: Zaldibar, Portaloia, Olarte, Zurgalde, Udala Plaza, San Andres, Portaloia eta Herriko Plaza.

■ OLENTZEROREN AGURRA

Olentzeroren agurra Mutil Dantza eta Herri Dantzarekin Herriko Plazan 7.30etan.

kontuan hartzekoak


■ LIBURU, DISKO ETA BIDEO AZOKA

Txatxilipurdik antolatutako Euskal Liburu, Disko eta Bideo Azokaren inguruan hainbat ekintza izango da: 21ean goizeko 11.30etan Herriko Plazan "Kiki, Moko eta Flax" pailazoak; abenduaren 22an arratsaldeko 5etan ludotekan 10 urte inguruko haurrentzat ipuin kontaketa eta 24an, 6-8 urte arteko entzat leku berean arratsaldeko 4etan. Liburu, Disko eta Bideo Azoka berriz, abenduaren 21ean zabaldu eta 24an itxiko da.

■ SANTAMAS ARGAZKI LEHIAKETA

Santamas batzordeak eta ASAk Santamas Argazki Lehiaketa antolatute. Argazkiak zuri-beltzean nahiz koloretan egin daitezke. Argazki bakoitzak 400 pezetako dirulaguntza jasoko du sariak banatzeko ekitaldian. Argazkiak 97ko urtarrilaren 9a baino lehen entregatu behar dira Oain, Juanma, Epelde, Ikatz edo losu argazki-dendetan. Sari banaketa urtarrilaren 13an arratsaldeko 7etan egingo da Monterronen.

Zorionak eta Urte Berri On!




Baserritarrez janzteko ohiturarik baduzu?




Nerea Zubiete
Langilea
(33 urte)

Ez, ez daukat ohiturarik, Santamasetan ia ez naizelako sekula etorri eta azken urteetan lokutorioan sartuta egon naizelako.



Aitor Rodriguez
Langabezian
(18 urte)

Ba ez. Marixutan janzten naiz, baina ez daukat Santamasetan janzteko ohiturarik.



Veronica Gomez
Ikaslea
(16 urte)

Ez. Ez naiz hemen egoten, Gabonak pasatzera kanpora joaten naiz eta.



Paco Bonet
Langabezian
(30 urte)

Ez, sekula ez zait okurritu, ezta Marixutan ere.



Olatz Elortza
Langilea
(23 urte)

Txikitan jantzi izan naiz, baina orain ez. Jantzirik ere ez daukat, gainera bezperan irtezen naizenez, gero goizean badakizu...




Pili Iriarte
Langilea
(40 urte)

Ez, eta ez dakit zergatik, sekula ez naiz baserritar jantzita irten.



Valentin Gonzalez
Ikaslea
(24 urte)

Ez. Marixu egunean irtezen naiz, baina baserritar jantzirik ez dudanez Santamasetan ez.



Isidro Auzmendi
Jubilatua
(69 urte)

Ez, sekula ez dut eduki. Arrasateko semea naiz, baina sekula ez dut ohiturarik eduki. Neu ez naiz sekula jantzi, baina janzten dienegatik neuri oso ondo pentsatzen jat.



Casa Ceciaga

Arrasaten 1908 urteaz geroztik.

MERTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK

Mañalako Errabala, 3 • Tel.: 79 12 62 • ARRASATE

USTEAK USTE

Santamas negarrak

Eguraldi txarra edo ona egin, jendez beteko dira domekan erdialdeko bazter guztiak. Santamasak. Egun batez, baserri giroko festa Arrasaten. Bezperan gauza bera Bilbon eta Donostian. Urteko gainontzeko 364 egunetan, festa gutxi baserrietan.

Gainbehera doa baserria. ATBn dagoeneko berrogeitik gora baserri egin diegu bisita, baserri bizi daitekeela diodanik aurkitu barik oraindik. Erdibideko formula batzurekin egin dugu topo: lantegia-ogigintza, lantegia-barazkiak, lantegia-ardiak..., Arrasate, tamalez, ez da aparteko kasua, inguruetako herrietan baserriak lortutakoarekin bizi direnak bi eskuekin zenbatu daitezke eta. Sonatuak dira, gainera, urtean zehar baserriarrek egiten dituzten protestaldiak, okela banaketa dela, ikuilu batean emandako prentsaurrekoa dela, esnetarako marmitten iraulketa dela... krisian bizi den sektore baten erakusgai.

Horra hor negarra, penak arintzeko noiz behinka ondo datorrena; ahazteko, berriz, festa egokiena. Horregatik, ondo pasa Santamasak eta Gabonak.

Beñardo Kortabarria.

astea bi hitzetan

■ Arrakastatsu Def Con Dos

“Def Con Dos” taldeak kontzertu arrakastatsua eskaini zuen joan den ostiralean Arrasateko gaztetxean. Jende ugari hurbildu zen gaztetxera kontzertua entzutera, eta entzuleen berbetan talde madrildarrak izugarritzko emanaldia eskaini zuen. Bi ordu iraun zuen kontzertuak. Behin baino gehiagotan eman du kontzertua Def Con Dos-ek Arrasaten, eta herrira gustora etortzen direla aitortu zuten.

■ Amnistiaren aldeko Gestoraren manifestazioa

Joan den ostiralean manifestazioa egin zen Arrasaten Gestorak deituta. Gose greban dauden presoak

gogoratzea, eta Josu Arkauz preso arrasatearra gose greban dagoela gogoratzea izan zen manifestazioaren helburua. Herriko kaleak zeharkatu ondoren besterik gabe bukatu zen manifestazioa. Gabonetan taberna jarriko dutela eta, tabernan parte hartzeko deia ere egin zen manifestazioaren hasieran.

■ Fagorreko langilea larri zauritu

Fagorreko langile bat, 42 urteko E.G.M. bergararra, larri zauritu zen zapatu gauean izandako lan istripuan. Langileak deskarga elektrikoa jaso zuen, eta ondorioz, hirugarren graduako erreduzarako geratu zitzaizkion. Langilea Gurutzetako ospitalean ingresatu dute.

■ Arrasaten 100.000 pezeta bildu

Hirugarren munduko produktuak saltzeko aste-bukaeran Arrasatera etorri zen autobusak 100.000 pezeta bildu zituen. Irun, Errenteria edo Donostian egon zenean baino gehiago saldu dela eta, antolatzaileak oso pozik daude autobusak herrian izan duen harrerarekin. Produktuei dagokien txokolatea, kafea eta Kubako Ron-a saldu ziren gehien. Autobus ibiltari honen helburua bidezko merkataritza bultzatzea dela eta, autobusera hurbildu ziren arrasatear askok galdetu ei zieten merkataritza horri buruz. Autobusa Lau Biden egon da, ostiraletik igandera arte.



FAGOR ELEKTRONIKAREN ASMOAK

Arrasateko Fagor Elektronika enpresan 885 milioiko inbertsioa egingo da, produktu berriak sortu eta semikonduktoreen arloan bide berriei ekiteko. Aipatutako inbertsioarekin 52 lanpostu berri sortu nahi dira. Datoren hiru urtetan aurrera eramango duen proiektu honen berri eman dio MCCk Jaurlaritzari.



OPIL OKINDEGIA

Hurbildu zaituz
hemen izango
zaituz.
ZORIONAK!!!

Inazio Zuloaga, 2 • Tfel.: 79 80 50 • ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik Setara.

Tel.: 79 26 99



*Ikatza ez da
Gabon hauetan
jaso dezakezun
oparirik txarrena.*



LASAGABASTER

*Gabon hauetan ez dezazu imitaziorik onartu.
Eros itzazu zure Levi's-ak bakarrik denda baimenduetan.*



KANPAZAR TAILERRAK



VITARA

3 eta 5 ate!

Suzukik bere gaman turbo diesela gehitu du.



Zatoz ezagutzera!!

Tailerrak:

Bizkaia etorbidea, z/g Tel.: 79 41 98

Erakusketa:


Araba etorbidea, 4 Tel.: 79 77 66

**SLAVA ZAITSEV en
PERFUME BERRIA**


**AUTHENTIC
MAROUSSIA**

Zirrara sentitu.

**SIBERLAR
IZOTZETAN
JAIOTAKO LURRINIK
FRESKAGARRIENA**



*Santamas eta
Gabon jai
zoriontsuak!!*



Emozioz urtu.

**ALTUNA
LURRINDEGIA**

Maalako errabala, 19 • ARRASATE
Tel.: 79 14 23

Maroussia Bitaeva,
Gure enbaxadorea.



Kartoa biltzeko zerbitzua eten

Atez ate kartoia biltzeko zerbitzua abian jarri zenetik urtebete pasa denean, zerbitzu horrekin bukatzea erabaki du Deba Garaiko Mankomunitateak. Bildutako kartoi kopurua handia ez, baina zerbitzuaren kostua nahiko garestia atera delako hartu du erabakia Mankomunitateak. Irtenbide modura, kalean dauden edukiontziak erabiltzea proposatu dute.

Zabor bilketan aldaketak

Abenduaren 24an eta 31n, arratsaldeko ordubatek ordubietara (eta ez gaueko hamarretara) atera beharko dira zabor poltsak. Ordu aldaketa honek honako kaleetan izango du eragina: Arrasateko erdigunea, Kalealdea, Munar, Musakola, Makatzena eta Sta. Teresa.

Jaiotzak

- Maria Aranburu Arnaiz. Abenduaren 6an.
- Joseba Imanol Garcia de Sancha. 12an.
- Lorea Sanchez Romero. 12an.

Hildakoak

- Rafael Atxa Lopez de Matu-rana. 64 urte. Abenduaren 6an.
- Ana Maria Fernandez Matu-rana. 56 urte. 7an.
- Maria Victoria Cenitagoia Basauri. 60 urte. 6an.
- Vicente Juldain Axpe. 46 urte. 11n.
- Dolores Petita Petita. 87 urte. 15ean.

Udalaren aurka errekurtsioa jarri du Ospital Psikiatrikoak

San Juan de Dios ospitalak errekurtsioa jarri du Udalaren kontra. Gesalibarreko goi-pasabidea zaharbertzeko baimena eman ez diolako jarri du errekurtsioa ospital psikiatrikoak.

Udalaren ustez, Diputazioari dagokio hori konpontzea baina hori egiteko asmorik ez duenez, proiektuan jasota dagoen moduan bota egin beharko litzateke goi-pasabidea. Diputazioaren ustez, goi-pasabidea eusten duten zutabeak egoera onean daude eta horregatik, ez du beharrezko ikusten pasabidea botatzea.



Udalaren ustez goi-pasabidea bota egin behar da.

Juan Jose Saenz


HBko zinegotzia, Deba Garaiko Kirol Politikari buruzko topaketan gainean

- Zein ondorioetara heldu zineten kirol topaketan?

- Alde batetik kirol politika amankomunaren auzeraz hitzegin zen, baina nire ustez lehenengo zerbitzuak berdin behar dira. Hau da, bakoitzak dituen prezioak desberdinak dira, batzuen instalazioak beste batzuenak baino berriagoak dira... Egoera honetan zaila da zerbitzuak biltzea. Hala ere gauza batzuk egin daitezke amankomunean: esaterako belodromo bat, bakoitzak bakarka egitea zaila da eta.

- Gestioa kirol taldeen esku uzteaz ere hitzegin zen.

- Posible da Udalek



instalazioak jarri eta gestioa kirol taldeen esku uztea, baina legaltasun aldetik horretarako aukera dagoen ikusi behar da lehenabizi.

- Gaiez aldatuz, astelehenean bilera du AUKE-Ako juntak. Kiroldegiari dagokionez, zer berri?

- Oraindik ez da eraba-

kirik hartu Musakolako kiroldegiaren inguruan, baina nire ustez faseka konpondu beharko litzateke. Lehenengo edifizio kalte-tuenekin hasiko ginatete eta ondoren besteekin jarraitu. Horretarako, lehenabizi lehentasunak zeintzuk diren finkatu behar dira.

- Uharkape gaia zelan dago?

- Udaletxeak LKSri eskatu zion hasierako proiektuan aldaketa batzuk egitea, eta egunotan txosten hori jasoko dugu. Nire ustez, posible da datorren urtean obrekin hastea, eta horretarako, datorren urteko aurrekontuetan diru kopuru bat luzatu beharko da.


CCOO: "Lanpostu publikoak pribatizatzeke joera dute bailarako Udalek"

Langile Komisioak-en iritziz, bailarako Udalak lanpostu publikoak pribatizatzen ari dira, eskaini beharreko zerbitzuen ardura enpresa pribatuaren esku utziz.

Azalpen horiek emateko asteazkenean eskaini zuten prentsaurrean adibideak ere jarri zituzten. "Parques y Jardines" enpresako langile batek hilero zenbat kobratzen duen jakinarazi, eta esan zuten seguru daudela Udalak orduko enpresa horri askoz diru gehiago ematen diola. Bestalde, Arrasateko Udalak orain dela gutxi Iturbide Egoitzan egindakoa goraiatu zuten, lehen pribatuak ziren lanpostuak orain publikoak dira eta.

Honen ildotik Akei-ren azuia ere gogora ekarri zuten, zaborrak Sasietara eramateko zerbitzua ez pribatizatzea eskatuz, garraioa enpresa baten esku utzi beharrean kalean geratu diren AKEIko langileei lanpostu bat ematea proposatu zuten.

Goizean eskari hauek egiten ziren baina arratsaldean Mankomunitatearen junta bildu, eta zaborraren garraio zer-



Arrasateko ETT-tara joan ziren CCOOkoak enpresa hauen iharduraren aurka daudela esateko.

bitzua adjudikatzeko lehiaketa deitzea erabaki zen. Beraz, enpresa pribatu baten eskutik geratuko da Sasietara zaborrak garraiatzearen ardura. Urtarrilaren 31-rako adjudikatuko da zerbitzua.

Eta beranduago, arratsaldeko 7etan, Akei-ko langileek itxialdia hasi zuten Arrasateko udaletxean. Euren egoerari irtenbide bat ematea

eskutzen diote Mankomunitateari eta Dragados-i. Muga gabeko itxialdia zazpi langilek hasi dute, arrazoi desberdinegatik beste hiruk borroka hau uztea erabaki dute eta.

ALDI BATERAKO LAN ENPRESEN AURKA

"Enplegua eskubideekin" lelopean kanpaina hasi du Langile Komisioak sindika-

tuak, Euskal Herrian, eta asteazkenean Arrasateko hiru ETT-tara joan ziren. Bulegotara sartu, eta idatzia utzi zuten euren ihardueraren aurka daudela jakinarazteko.

Kontratu moeta horiek dituzten langileek dagokiena baino gutxiago kobratzen dutela eta, enpresa horien kontra "gogor" egingo dutela aurreratu zuten.

Hirigintza gaiak nagusi gaurko plenoan

Maalako Errabaleko obrak nork egingo dituen jakingo da

Batez ere hirigintzari buruzko gaiak izango dute garrantzia gaurko plenoan.

Batetik Maalako Errabaleko obrak adjudikatuko dira, eta bestetik, San Frantziskoko urbanizazio proiektua jarriko da mahaigainean. San Frantziskoko trafikoa zuzentzeko errotonda bat eta beste hainbat obra egitea ere proposatzen da, baina

asteazkenean hirigintza batzordean gobernu taldea eta oposizioa ez dira ados jarri egin beharreko guztian.

Beste puntu bat baserri-bideena da, eta hemen ere iritzi desberdinak egon daitezke saneamenduan zenbat ordaindu behar den finkatzean. Hamabi puntu datoz gai zerrendan, baina baliteke hirukoak Zerra-

jeraren gaia ateratzea. Asteazkenean SPRIk idatzia bidali du Udalarekin hitzarmena sinatzeko, baina idatzian eraikina kontsolidatzea eskatzen da, hau da, orain dagoena (erlujua duena) ez botatzea. Beste aukera, berriz, orain dagoena bota eta berria egitea litzateke. Hirukoia kontsolidatzearen alde legoke.



*Neguz
goratu!*




LORAMENDI

EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK!



NEREA



**BARRUKO
ARROPATAN
ESPEZIALISTAK.**

Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tel.: 79 13 43

Eguberri on!

ISPILU

BAR

OLARTE KALEA, 45
ARRASATE. Tel.: 79 67 84

Zubizaneta

GALERIA 44

Gabonetako oparirik onenak

Zerkaosteta, 8 Tel.: 79 90 50 • ARRASATE

Portugaletik inportazioak!

Prezio ezin hobeak!
Konfiantza osoz!

GABONETAKO PREZIO BEREZIAK!!!

Zorionak eta Urte Berri On!

Olarte, 6 • Tel.: 79 25 71 • ARRASATE

DISCO-BAR

Disco-Bar Gurelekuk Santamas egun zoriontsua oparitzen dizu.

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 79 20 29

ARREGI

Arte eta Enmarkazioak

- Markoak
- Kuadro originalak
- Obra grafikoa
- Laminak
- Ispiluak

Maalako Errabala, 8 • ARRASATE • Tel.: 79 56 44

BILUZIK 150

EMAKUMEREN AURREAN



Hau, hau da joan den ostiralean Kataiden *strep-teasea* egin zuen gizona. Bai, bai... arropa guztia kendu zuen eta jakina, han bildutako 150 emakumeak zoratuta utzi zituen. Noraino heldu ziren garrasiak? Nork daki! Carlos da bere izena eta brasildarra da. Izugarri ondo mugitzen ei da, izan ere, dantzaria ere bada baina dantzak bizitzeko beste ematen ez dionez Carlosek *strep-teasea* egiteari ekin dio. Gustora ei dabil eta oso ondo moldatzen da!

IZENA

Marian Porcel

arduratuko da urtariletik aurrera, Egin egunkarian Arrasateko albistek idazteaz.

Marian arrasatearra da eta 25 urte ditu.

Kazetaritza ikasi zuen Leioako unibertsitatean, eta orain ARKOn ari da lanean, astebukaeretan. Horrez gain, Fagorrek kaleratzen duen Geurean aldizkaria egiten du. David Lazkano ordezkaturko du.



ZENBAKIA

5.420 bonbila

jarri dira Gabonetako argiterian, 32 multzotan banatuta. Horretaz gain, Udaletxeko balkoian "Zorionak eta urte berri on" esaldia ere argizatuko da. Iturriotz kalean 8 argi-multzo jarri dira, Erdiko Kalean beste hainbeste, Ferreriasen 7 eta Olarten eta San Frantziskon 2na. Jarritako bonbila bakoitzak 6 watio dauzka, 130 pta. balio diou, eta bada ez bada, funditu edo apurtu egiten dituztelako, Udalak beste 2.000 dauzka.

DATA

1917ko abenduak 22

Trena heldu zen Arrasatera. Zerrajera sortu zenetik beharrezkoa ikusi zen ikatza eta burdina ekartzeko, bera zen eta garraibide erosoena. Trena Bergararaino iristen zen, eta aipatutako lehen-gaiak hona ekartzea garestia zen. Premiak aginduta, Union Cerrajerako zuzendariak gobernuarekin harremanetan jarri eta 1917ko abenduaren 22rako bertan zen trena.

BUZTANMOTZ: SANTAMASETAKO TXERRIA

Handia, e? Bai, 350 kiloko pisua du eta Buztanmotz izena jarri diote Elizgarai baserrikoek. Txerria arabarra da baina orain Santa Agedako baserrian dago abenduaren 22ra arte. Bost urte ditu eta begi urdinak... potxolada bat! Elizgarai baserrikoek asko jaten duela eta oso lasaia dela diote... haragi onekoa izango da gero!






PANTERA BELTZA?

Bai, Pantera Beltza da Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo hirukoteak sortu duen ikuskizun berriaren izenburua. Baina ez, ikuskizuna ez da beldurrezkoa, ezta gutxiago ere. Joan den domekan izan ziren Amaia antzokian eta umeen eta helduen barre algarak sortu zituzten. Euren ohiko sudur gorri, koadrodun peto eta guante txuriekin agertu ziren eta arratsalde ahaztezina igaro arazi zieten umeei.

ARIN ARIN FANDANGOAN

Hamairu bikotek hartu zuten parte domekan Arrasateko VI. Binakako Arin Arin eta Fandango Txapelketan. Azkenean onena Aiora Iturria eta Gorka Zabaleta azpeitia- rrek osatzen zuten bikotea. Sekulako trebetasuna erakutsi zuten dantzan eta merezitako saria etxeratu zuten. Zorionak!

Argazkian ikusten direnak gaztain gutxi batzuk baino ez dira baina guztira 150 kilo erre zituzten AEDko gazteek zapatuan herriko plazan. Danbolnari eragin eta ordutxo batzuk bero bero igaro zituzten gaztain-erretzalleek. Usala kaleetatik zabaldu eta goseti asko hurblidu zen gaztain bila, galnera, borondatearen truke ematen zituzten.



GABONETAKO MILA LAN

GIMeko 7-13 urte arteko umeek bertako mediatekarak antolatu duen lehiaketan parte hartu dute gabonetako lanak egiten. Oso lan originalak egin ei dituzte eta batzuk saria eta guzti jaso dute. Egunotan gazte asko pasatu da mediatekatik lagunen lanak ikustera eta jakina, argazkian agertu nahi izan dute.

ITSASKI ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94

Uziarte SPORT

Zorionak eta
Urte Berri
On!

Olarte, 6 • Tel.: 79 27 78 • ARRASATE

GORKA ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

Mila esker zuen konfiantzagatik. Gabon jai zoriontsuak!



**Chapime
Tailerrak**

Araba etorbidea, z/g
Tel.: 79 06 57 / 79 45 22
ARRASATE



- Bidaiatzeko eta jazteko poltsak
- Bisuteria
- Opariak
- Edertasun kabinetea
- Solariuma

LANCASTER

Eskaintza bereziak:
Eau de Lancaster eta
aurpegiko kosmetika

*Opari saskiak
prestatzen
dira!*

Kanpatorpea, 4 Tel.: 79 12 19 ARRASATE

Eguberri zoriontsua!



S. Carrascal S. L.



**ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!**

Bertan egindako

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak
- Etabar

Fabrian erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tfnoa/Faxa: 79 01 82





LEIHO ISOLATZAILEAK



Bezerearekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

**Irtenbide
aproposena!**



(I+D) Ikerketa eta garapena

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.
Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE




Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia







Jose Luis Ezkurra, Mondrako presidentea.




Bixente Etxandia, UDAko presidentea.

Aspaldiko partez... derby-a!


Ez da mendeko partidua izango. Ronaldo eta Suker bezalako jokalaririk ez da zelairatuko. Sarrerak lortzeko ere arazo handiegirik ez. Hala ere berdin da, UDA eta Mondraren arteko norgehiagokak beti izan dira erakarriak, eta aspaldiko partez asteartean jokatuko denak ere mendeko futbol partiduek bezain beste barriketa eragingo du. Jakina, gure bailaran!!!

Erdi brometan, "auzokoen kontra jokatu behar dugu" esanez joango zarete Aretxabaletara Mondrako hainbat zaletu. Atxabaltarrek ere gertu izango dute erantzunen bat. Elkarren ondoan dauden beste herri askok bezala, Aretxabaleta eta Mondraren artean beti egon dira pikeak (sanoak gehienetan) eta martitzenean horiek berpiztu egingo dira.

Aspaldiko partez esaten nuen hasieran, izan ere 87-88denboralditik bi taldeetako zaletuek eta jokalariek ez dute elkar ikusi liga txapelketako partiduan. Orduan, bi taldeek 3. mailan jokatzen zuten baina UDA kas-



asteko gaia



rreko beste partidu bat dela esan.

Bixente Etxeandiak, UDAREN lehendakariak, 49an jokatu-tako derby-a du gogoa. Orduan berak UDA taldean jokatzen zuen, eta Mondrako jokalaria bati, *Fertxuri*, eskuetan geratu ei zitzaion Bixenteren kamiseta. "Orduan, partiduak odol beroagoaz jokatzen ziren. Gainera askoz ere ikusle gehiago joaten zen futbol zelaira".

kar zebilen eta preferentera jeitsi zen. Mondrak, berriz, aurreko denboraldian egin zuen kale eta horrela, UDAREkin topo egin zuen preferentean. Aurten, berriz, kontuak beste era batekoak dira eta talde bialdo sailkatuta daude: UDA bigarren eta Mondra seigarren, lau puntura. Duda barik, irabazlearendako izango diren hiru puntuak bereganatzen ahaleginduko dira bi taldeak.

Ezkurak dioskunez, berriz, derby-a jokatzerat baino partidua irabaztera joango dira. Presidenteak zehazten duenez, hiru puntu daude jokoa eta horiek eskuratzeko izerdia edozein partidutan bota behar da. Hala ere, jokalarien artean egongo dela irabazi nahia eta zaletuak ere animatu direla uste du Ezkurak.

BI PRESIDENTEAK BERBETAN

Pozik daude talde bietako presidenteak derby-aren aurrean, nahiz eta Bixentek garai batekoak bezalakoak ez direla aitortu, eta Jose Luis Ezkurak azkenean irabazi beha-

DERBY-A ETA OMENALDIA

Derby-a alde batetik, baina badago martitzenean Aretxabaletara hurbiltzeko beste arrazoi garrantzitsu bat: Ando-



87-88 denboralditik bi taldeetako zaletuek eta jokalariek ez dute elkar ikusi liga txapelketako partidu batean


Bi anai aurrean

Derbyan izango da bi taldeetan jokatu izan duen jokalaririk. Zehazki, UDAko veteranoak dira aurrez Mondran ibili direnak: Gordobil, Urbina, Azkue, Madina eta David.

Baina saltsa honetan bada kasu berezi bat: Luengo anaia. Nagusienak, Mikelek, UDAn jokatzen du eta gazteagoak, Asierrek, Mondran.

Bi anaiek elkarren kontra jokatuko dute asteartean entrenatzaileek aukera ematen badiete behintzat, baina minutu batzuek sikiera Luengotarrek horretarako aukera izatea espero dute. "Azken partiduetan ez dut jokatu, baina anaia irtetzen badu azken minutuetan zelairatzea eskatuko diot entrenatzaileari" dio UDAko jokalaria erdi brometan.

Mikelen eta Asierren berbetan, gainontzeko jokalariei moduan euren ere ilusio handia egiten die derby-ak, eta etxean ere asko



Mikel Luengo, UDAko jokalaria.



RAFAEL ATXA LOPEZ DE MATURANA



**ZURE ALAITASUN ETA IRRIFARRAK
EMATEN DIGU INDARRA.
ESKERRI ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK,
RAFA.**

Arrasateko **elkarri**

EsLu

ileapaindegia

Tel.: 79 37 88 • ARRASATE


aurre

hitzegiten ei da neurketa honi buruz. Hori bai, batak edo besteak irabaztea nahi dute etxekoek, horrela nori zirikatu izango dutela eta. Amak, berriz, nahiago du bi semeak berdinketarekin etxeratzea. Aposturik, berriz, oraingoz ez, baina Mikeli igartzen zaio zerbaiz jokoan jartzeko gogoia.

Talde desberdinetan jokatzear gain, futbolari moduan ere desberdinak direla esaten dute. Asierren ustez, Mikel jokalaria hotzagoa da eta hobeto daki baloia kontrolatzen; berak, oster, odol beroagoa du azkarra- goa ei da. Batak besteari falta egingo ote liokeen galdetzean, biek diote behar izanez gero bi bider pentsatu barik botako dutela anaia lurrera.

“Erraz irabaziko dugu”

esaten dio Mondra-
ko jokalaria
UDAKoari, baina
azken honek
zera erantzun-
ten dio:
“ikusiko
dugu”.



**Asier Luengo,
Mondrako jokalaria.**



Badago asteartean Atxabaltara hurbiltzeko beste arrazoi bat:

Andoni Zubizarretari omenaldia egingo zaio. Partidua hasi baino lehenago, urrezko intsignia jarriko diote Atxabaltako atezain internazionalari.

ni Zubizarretari egingo zaion omenaldia. Andonik ezin izan zuen joan den domekan 50. urteurrena ospatzeko UDAK antolatu zituen ospakizunetara etorri. Gabon gauean jaio-terrirra itzuliko zela eta, bide batez domekan jokatu beharreko partidua atzeratu eta derby-aren egunean atezain internazionalari merezitako omenaldia eskaintzea erabaki zen. Martitzenean, partidua hasi baino lehenago, urrezko intsignia jarriko diote atxabaltako internazionalari, eta hori gutxi balitz, Clemente entrenatzailea ere bertan izango da. Zita garrantzitsua beraz, futbolzale atxabaltar zein arrasatearrendako, Ezkurak dioen bezala “Andoni guztiona da”.

baina eguraldi ona egiten badu, Ibarrara jende mordokajoa eta espero du Bixentek. Hori da UDA taldeko presidentearen esperantza, taldeari ondo etorriko zaio eta dirutxo batzuk biltzea. Gainera, gabonak datozela eta, presidentea gertu dago irabaziz gero jokalariei diru gehixeago emateko.

Zelan ez, klubaren eguna ezarri dute martitzenerako, eta Arrasateetik joango zaretenok poltsikotik 600 pta. atera ondoren sartuko zarete futbol zelaira. Tribunan jartzea erabakitzen baduzue, gainera, beste 200 pta. ordaindu behar-ko dituzue.

Ah, eta ahaztu barik norgehiagoka honen ordutegia ematera noakizue. Arratsaldeko 4etan, Olentzero etorri baino lehenago, hasiko da neurketa. Nori ekarriko dio oparia? Eta nori ikatza? ■

IBARRA ZALETUZ BETE NAHI

Gero eta gutxiago ei dira domekero-domekero futbol zelaira joaten diren zaletuak,

Maria Agirre

Sili Sili
Martxa eta estilo
handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82



**HEMEN
gozotegia
GAO kafeak
Kroissanteria**
Sebero Altube, 8 • Tel.: 79 94 99 • ARRASATE

•ARTEA•
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tel.: 79 10 95
ARRASATE

Herensugeak taldeko jokalaria

RIKARDO ERCILLA

“Omenaldia antolatzea jokalarien ideia izan da”

— Juan Garai eta Haritz Etxebarriari omenaldia egingo diezue zapatuan.

— Juan Herensugeak taldeko jokalaria zen eta Haritz senior mailakoa. Hil diren lehenak izanik, zerbait berezia merezi zutela pentsa genuen jokariok.

— Egongo da beste ekintzarik?

— Guk bi rugby neurketa antolatu ditugu. Bien erdian plakak banatuko diegu senitartekoei eta horrez gain, Herensugea beterano taldeak kamiseta emango dio Juanen familiartekoei bertan jokatu zuelako.

— Nolakoak ziren Haritz eta Juan?

— Nik Juan ezagutzen nuen, pertsona jatorra, taldean dena bideratu eta aurrera ateratzen zuen, beti irrifartsu, beti umore onez. Haritz ez nuen horrenbeste ezagutzen baina pertsona jatorra eta lagun ona zen.

— Herensugea taldea aurten formal dabil?

— Bai jakina, 25 lagun gaude eta ganoraz ari garela esan genezake. Entrenamendutan beharbada ez hain fin, baina tira! Denak elkartzeko toki onena afariak izaten dira.

— Datorren urteari zer eskatzen diozue?

— Herensugea taldea sendotzea, eta Eskoziara bost nazioen arteko txapelketako partidu bat ikusten joateko laguntza.

— Omenaldi batean emaitza edo ideia da garrantzitsuena?

— Irabaztea ez. Garrantzitsuena ondo pasatzea eta lagun artean egotea.



RUGBYA Omenaldiko bi neurketa



Arrasate Rugby taldeak asteburu honetan ez du denboraldiko neurketarik jokatu.

Zapatuan arratsaldeko 3.30etatik aurrera Haritz Etxebarria eta Juan Garairen omenez bi neurketa jokatu dira. Lehenengoan Txantonboys eta Arrasate taldea izango dira lehian. 40 minutuko iraupena izango du neurketak. Ondoren omendutako senitartekoei plakak banatuko zaizkie. Ekintza hori bukatuta Herensugeak beterano taldeak Getxoren kontra jokatu du. Rygbylariek urteko azken neurketa abenduaren 28an jokatu dute Garaiztan eta aurkaria Zarautz izango da.

FUTBOLA More zuria edo urdin zuria




UDAK eta Mondrak derbya jokatu dute abenduaren 24an Ibarako futbol zelaian. 87-88 denboralditik ez ziren partidu ofizial batean talde biak elkartzen.

Partidua arratsaldeko 4etan hasiko da baina ordu laurden lehenago Andoni Zubizarreta atezainari omenaldia egingo dio UDAK. Une honetan Aretxabaletako taldea sailkapeneko bigarren tokian dago 29 punturekin; Mondra berriz, 6.ean 25ekin. Talde bietan ez da baja garrantzitsurik izango eta entrenatzaileek talde osatuen atera ahal izango dute.

Mondrako emakumeek Bizkerre taldea izango dute arerio zapatu arratsaldean Bilbon. Bizkerre sailkapenari begira ez da talde sen-

doa, beraz Juanina Garaiek zuzentzen duen taldeak itxuraz ez luke arazorik izan behar neurketa aurrera ateratzeko. Aurrendenboraldian talde biek elkarren kontra neurtu zituzten indarrak eta arrasatearrak atera ziren garaile.


SASKIBALOA Liderarren bisita Iturripen



Urbina Maltzagak ez du erronka samurra izango zapatuan arratsaldeko 6etan Iturripen,

Meroil liderraren bisita jasoko du eta. Kataluniako taldeak hamar neurketa irabazi eta bi galdu; Arrasatek kontrakoa. Datu hauek kontuan hartuta, zaila ikusten da garaipena. Gainera Arrasateko taldeak bi baja izango ditu: Jose Luis Ortun zuntz haustura duelako eta Moises Cruz besoan ebaki batekin. Partiduko sarrera Santamas jaiek direla eta, ez da ordaindu behar.

ESKUBALOA Urteko azken partidua



Ibon Alzelairen mutilek ez dute pozik egoteko arrazoi handirik.

Azken ihardunaldietan gutxigatik baina galdu egin dute. Urteko azken partidua Kataluniako Bordils taldearen aurrean jokatu dute zapatuan arratsaldeko 7etan Katalunian. Bordils sailkapeneko 6. tokian dago 11 punturekin. Arrasate 4 punturen jabe azkenaurreakoa da. Neurketari begira jokalariaik baikor daude eta epaileekin arazoak ez badiutuzte irabazteko gauza izango direla diote.



Aurrebenjaminetan Erguin A taldea garaila

Erguingo Txapelketak irabazle berriak

Erguin Futbito Txapelketako finalak jokatu ziren domekan Erguingo kantxan. Infantil, Alebin, benjamin eta aurrebenjaminetako finalak egon ziren ikusgai goizean zehar. Infantiletan Irabazlea Video Club Daglas taldea izan zen, bigarrena Indo Urko. Alebi-

netan CC Al Andalus txapel-duna eta txapeldun-ordea Fontaneria Aretxabaleta. Benjaminetan Garaje Eder atera zen nagusi eta Pedrusko bigarren. Aurrebenjaminetan berriz, partidu bizian Erguin Ak 4 eta 2 irabazi zion Indo Kaixo taldeari.

Santamas Krosean Los Gallos irabazle

Santamas Krosaren irabazleak, banakako eta koadrilen arteko mailan.

Gizonezkoak

- | | |
|----------------------|--------|
| 1- J. Ramon Petreñas | 19'20" |
| 2- Jabier Mentxaka | 19'31" |
| 3- Francisco Andres | 20'13" |
| 4- Alfonso Luelmo | 20'27" |
| 5- Alejandro Altuna | 20'29" |

Emakumezkoak

- | | |
|---------------------|--------|
| 1- Mari Jose Gil | 26'14" |
| 2- Francisca Alonso | 26'08" |
| 3- M Jesus Delgado | 27'51" |
| 4- Elena Llorente | 30'17" |

Koadrilen artekoa

- | | |
|---------------|-----------|
| 1- Los Gallos | 41 Puntu |
| 2- Auzokue | 63 puntu |
| 3- Musakola | 65 puntu |
| 4- Txu Txu | 114 puntu |

Erik Martin urrezko dominarekin etxera

Erik Martinek junior mailako Euskadiko karate Txapelketan hartu zuen parte Portugalen zapatuan eta lehen postua eskuratu. Erikek 15 eguneko epean Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan urrezko domina lortu du.

Saskibaloia selekzioa

Itxaso Mallabiabarrenak, 16 urteko arrasatearrak estatuko saskibaloia selekzioarekin jokatu ditu hainbat partidu Bartzelonan abenduaren 26tik 30era. Euskadiko ordezkari bakarra izango da selekzioan.

Txapela buruan eta garaikurra eskuan

Aurrebenjamin eta benjamin mailako finalistak dira argazkikoak. Zapatuan jokatu zuten finala. Aurrebenjaminetan Bolinagak 22 eta 18 irabazi zion Elorzari. Benjaminetan Losada nagusitu zen 22 eta 16 Agirreren aurrean. Domekan gainontzeko finalak jokatu ziren.

- Alebin B**
Arroiabe 22/Jimenez II 20
- Alebin A**
Balanzategi 22/Rodriguez I 21
- Infantilak**
Ormatxeak 22/Zuazuak 12
- Kadeteak**
Dominguez 22/Etxeandia 18
- Jubenilak**
Lazkao 22/Nafarrete 16



ZABALA
oinetakoak

Zorionak eta Urte Berri On!

Erdiko kale, 18
Tel.: 79 14 27

ARROGOI
TABERNA

Gabonak iritsi dira, zatorz sugana!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

ZUK NAHI
Taberna

Pintxo goxoak
giro onenean!

Erdiko kale ARRASATE
Tel.: 79 79 26

Hauek dira 1996 urtean be...

SUKALDE ALTZARIAK

Bañez Doktorea, 2 • Tel.: 79 18 92


Jai hauetan larunbat
arratsaldetan ere zabalik.

KALITATEA



Jose Aran...

GARANTIA PERTSCA



BERRIKUT



eriztu gaituzten ezaugarriak

anxabat

ELEKTRAGAILUAK

Iturriotz, 15 • Tel.: 79 15 16

URTE BERRI ON!

NA

CALIZATUA



UTZAK

**ZERBITZU ETA
ESKAINTZA
ONENAK**

FAGOR 

**ORAIN
%30
GUTXIAGO**



Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Irati STS	11	10	0	1	65	16	20
Betrayer	11	10	0	1	70	19	20
Aurrera Bolie	11	8	0	3	62	35	16
Galartza Kont	11	8	0	3	55	32	16
Lorategi Potroak	11	7	2	2	41	27	16
Pipwhis	11	8	0	3	57	38	16
DKB	11	6	3	2	40	25	15
Abinagraus	11	6	2	3	55	30	14
Arrogoi Taberna	11	7	0	4	39	41	14
BANEUKO	11	5	2	4	24	29	12
Ojo Avisore	11	5	1	5	47	41	11
Totem	11	5	1	5	41	37	11
Onarieneng	11	5	1	5	32	47	11
Leya	11	5	0	6	40	54	10
Potrosorri	11	4	1	6	36	35	9
Me la Pela	11	4	1	6	30	31	9
Berango Sukald.	11	3	1	7	41	53	7
Kriskibalda	11	2	2	7	28	45	6
Alai Gozokiak	11	1	3	7	20	61	5
Viboras	11	2	0	9	40	57	4
Kaxi Ganamos	11	0	0	11	3	31	0
Etxe Mobil	11	0	0	11	8	90	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Cerve Leintz	11	10	0	1	70	16	20
Naranja Mekanika	11	10	0	1	79	21	20
Argi Ibilii	11	10	0	1	94	27	20
Insert Coin	11	9	1	1	65	17	19
Okoretegi	11	7	3	1	64	23	17
Ke Oxtias	11	6	3	2	44	34	15
Jotakabau	11	6	2	3	36	42	14
Lso Heredia	11	6	0	5	48	35	12
ZZPPW7	11	4	4	3	56	52	12
Los Innombrables	11	4	4	3	45	43	12
Motz	11	5	2	4	43	44	12
Pepelus	11	4	2	5	44	35	10
Perrahotsa	11	3	3	5	30	35	9
Sobred. de txeira	11	4	1	6	33	47	9
Diego Antonio	11	4	0	7	39	50	8
La mosca gao	11	3	2	6	47	65	8
Fosforos	11	3	2	6	35	57	8
Gualtrapas	11	3	1	7	31	57	7
Kinder Konpresa	11	2	1	8	30	66	5
Ganbelas	11	2	0	9	38	65	4
Elisabeth	11	0	1	10	20	91	1
Hapoel Jamon	11	0	0	11	16	85	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
AC Surkos	11	9	0	2	95	33	18
Nuevo taberna	11	8	2	1	60	27	18
Sortu Informatika	11	8	2	1	54	25	18
MSM Ing. Int.	11	9	0	2	60	33	18
KK Jaurilaritzari	11	8	1	2	48	38	17
Bedarreta taberna	11	8	0	3	47	26	16
Txeenex	11	6	3	2	50	33	15
Sokoakoak	11	6	1	4	74	47	13
Orlando Piratas	10	6	0	4	42	45	12
Koka Juniors	11	4	3	4	45	42	11
Adelaida	11	5	1	5	37	41	11
Los Dimy	11	5	0	6	43	44	10
Danok Lagun	10	4	2	4	24	33	10
Anbotoste KT	11	4	0	7	28	43	8
Lautherbrunnen	11	4	0	7	31	52	8
Hirei	11	4	0	7	33	57	8
Tronkoteak	11	4	0	7	24	44	8
Cartonajes Igamo	11	2	2	7	37	40	6
Bukanak	11	3	0	8	31	56	6
Borrock'n'roll	11	2	0	9	55	66	4
Rotor de Bolbogr.	11	1	1	9	7	44	3
Iluna taberna	11	1	0	10	31	87	2

Laburrak

■ BESTETALDE BAT KANPOAN

Iluna Tabernak Danok Lagun taldearen kontra neurtu behar zituen indarrak zapatuan goizeko 9etan Zaldibarren. Aurkeztu ez zenez txapelketatik kanpo dago. Dagoeneko hiru talde daude kanporatuta: Iluna Taberna, Kaxi Ganamos eta Rotor de Bolbogrado.

■ SUSTOA ZALDIBARREN

Zapatuan eguerdiko ordubatean, Orlando Piratas eta Bedarreta taberna atxabaltarren arteko derbyan, Bedarretako jokalaria batek konortea galdu eta okotz aldean ebaki bat egin zuen. Bere onera etorri zenean ospitalera eraman eta zorionez sustoan gelditu zen istripua.

Emaitzak

A taldea

Kriskibalda 5 - Arrogoi taberna 6
Irati STS 7 - Ojo Avisore 2
Lorategi otroak 2 - Betrayer 1
Alai Gozokiak 3 - Abinagraus 3
Aurrera Bolie 12 - Leya 6
Baneuko 2 - Potrosorri 1
Berango Sukaldeak 2 - DKB 6
Galartza Konten 7 - PipWhis 3
Etxe Mobil 3 - Onarieneng 8
Viboras 1 - Kaxi Ganamos 0
Me la Pela 1 - Totem 4

B taldea

Insert Coin 9 - Ganbelas 1
Motz 1 - Ke Oxtias 3
ZZPPW7 3 - Argi Ibilii 10
LOs Innombrables 3 - Okoretegi 3
Kinder Konpresa 4 - K=Jotakabau 5
Sobredosis de Txeira 1 - Cerv Leintz 4
La Mosca Gao 2 - Naanja Mekanika 13
Diego Antonio 7 - Pepelus 2
Hapoel Jamon 3 - Los Heredia 5
Fosforos 8 - Gualtrapas 0
Perrahotsa 5 - Elisabeth 3

D taldea

Bedarreta Taberna 6 - Orlando Piratas 5
Danok Lagun 1 - Iluna Taberna 0
Cartonajes Igamo 8 - Lautherbrunnen 2
MSM INge INtegral 9 - Sokoakoak 8
Nuevo Tab. 1 - Rotor de Bolbogrado 0
Koka Juniors 6 - Txeenex 6
Sortu Informatika 5 - AC Surkos 4
Anbotoste 0 - KK jaurilaritzari 6
Borrock'n Roll 2 - Adelaida Aldibi 7
Lso Dimy 1 - Tronkoteak 2
Bukanak 7 - Hirei 4



Hurrengo urtera arte gol gehiagorik ez

Datorren asteburuan Santamas jaiak direlako ez da Zaldibar txapelketarik egongo. Hurrengo ihardunaldia urtarilaren 4, 5 eta 6an jokatuko da. Hiru egunetako ihardunaldia izango denez, partidu gehienak Zaldibarren jokatuko dira. Hala ere, zapatu arratsaldean hainbat taldek Iturripen jokatuko beharko dute. Datorren urtera arte beraz, lasaitasuna izango da nagusi Zaldibako kantxan.

J. Markiegi.

Gizonezkoen moda

URTE
BERRI
ON!

Olarte, 2
Tel.: 79 15 32

A R R A S A T E



LIBURU ETA PAPERDENDA
BIDAIRAKO ETA
LARRUZKO ARTIKULUAK

Iturriotz, 4 • ARRASATE
Tel.: 79 14 84

EGUBERRI ON ARRASATE!



LORE

LURRINDEGIA

KABINA

gorputz tratamendua • aurpegi tratamendua
drenaje linfatikoa (Dr. Vodder sistema)
depilazio elektrikoa
solariuma (dutxarekin)

Olarte kalea, 10 • ARRASATE Tel.: 79 52 50

Deba Garaiko 180 lagunek parte hartu dute AEDren lehiaketetan

A tzo banatu ziren AEDren Arrasate Lehiaketak eta Iokin Zaitegi Itzulpen Laburren Lehiaketako sariak. 180 lagunek hartu dute parte, iaz baino 30en bat gutxiagok.

Partaidetzari dagokionez, ipuinean 118 lagunek parte hartu dute, iaz 134k; poesian beste 13k; bertso paperetan iaz 17 lagunek parte hartu zuten eta aurten 5ek; komikietan iaz 48k eta aurten 40k eta Iokin Zaitegi sariketan iaz 11 lan izan baziren aurten 4 lan aurkeztu dira. Datuak ikusita partaidetza kopuruak sail gutzietan behera egin dutela esan daiteke. Dena dela, lanen kalitatea inoiz baino hobea da eta Esther Apaolazaren esanetan. Estherrek aipatu due-



Sariak ostegunean Monterronen egin zen ekitaldian banatu ziren.

nez, "komiki sailean gero eta mahaikideek arlo hori potentziatu beharra aipatu dute.

Arrasaten oso harrobi ona dagoela eta komikigintza indarra hartzen ari dela aipatu dute". Bertso eta poesiari dagokionez, partaidetzak urtez urte behera egiten duela esan du Estherrek eta ipuinen sailak gogor jarraitzen duela. Iokin Zaitegi Itzulpen Laburren sariketaren gainean "oso kalitate oneko lanak jaso ditugu eta gainera gaurkotasan handiko gaiak jorratu dituzte" esan du Estherrek.

Bestalde, aurten AEDK antolatutako Arrasateko euskararen testigantza, antzerkigintza eta ikusentzunezkoen gidoigintza lehiaketa berrietan partaiderik egon ez dela aipatu behar da.

Aurtengo irabazleak

POESIA

12 urte: Leire Zubia eta Esther Mateos (10.000 pta.)

13 urte: Arantzasu Biteri (12.000 pta.)

14 urte: Ion Berezibar (15.000 pta.)

15-16 urte: Alaitz Gonzalez (20.000 pta.)

17tik aurrera: Mireia Olave (35.000 pta.)

Akzesitak: Asier Akizu, Nerea Uriarte, Asier Albistur, Leire Eraña, Gurutze Arruabarrena.

POESIA

14 urte: Maria Alonso (15.000 pta.)

15-16 urte: Hutsik.

17 urtetik aurrera: Ion Aiausti (35.000 pta.)

BERTSO-PAPERAK

Txikiak: Hutsik.

Nagusiak: Ioseba Irazusta (35.000 pta.)

KOMIKIA

17 urtetik behera: Andoni Barquero eta Iker Beitia (20.000 pta.)

17 urtetik aurrera: Mikel Arroiabe (45.000 pta.)

IOKIN ZAITEGI ITZULPEN LEHIAKETA

Irabazlea: Ioseba Osa (250.000 pta.)



Zubia
Cinetakoak

Poltsak • Zapatak • Gerrikoak

Mitarte, 14 Tfnoa: 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri, 1 Tel.: 79 66 53 ARRASATE

MILARION

**Taberna-jatetxea
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Zorionak eta Urte Berri On!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

LUIS MARIA ALVAREZ

“CD-roomak umeak literaturaren mundura hurbiltzeko formula onena dira”


Laister paperean idatzitako ipuinak zahar geratuko dira. Orain ipuinak CDan eskatuko dituzte umeek. Horren lekuko Anaya etxeak sortu eta Eskoriatzako Irakasle Eskolako Teknologia Berrien sailean ekoiztu duten Printze Zoriontsua CDaren arrakasta. Multimedia produktu horrek Moevius Nazioarteko Saria jaso du umeekiko dauden interaktibitate maila handiagatik. Luis María Alvarezek, Eskoriatzako Teknologia Berrian saileko arduradunak CDaz berba egín du.

— **CD-Roomaren zein ezaugarrien-gatik eman zaio Moevius saria?**

— Nazioarteko multimedia onenari ematen zaion saria da. CDak bi sari jaso ditu: orain dela lau hilabete Moevius Iberica saria jaso zuen Bartzelonako unibertsitatean eta ondoren, *CD-Room* berak estatuko produktua ordezkatu zuen Parisen Moevius Nazioarteko sarian. Interaktibitate modelo oso bat izateagatik jaso du Moevius saria, hau da, multimedial definitzen dituen ezaugarri bat dago eta ezaugarri hori euren interaktibitate maila da, ordenadore aurrean dagoen pertsona izan dadila multimedial dagoen informazio guztia manejatzen duena. Beraz, Printze Zoriontsua *CD-Roomari* bere interaktibitate maila handiagatik eman diote saria.

— **Zer aurkitu daiteke Printze Zoriontsua CD-Roomean?**

— Printze Zoriontsua multimedialak Oscar Wilderen ipuina kontatzen du baina umeek ipuin hori aldatu eta nahi dioten amaiera, pertsonaiak, testua, musika, eszenarioa eta egoerak eman ahal diote. Azkenean, euren irudimena eta sormena pizten du *CD-Roomak*.



— **Zelako harrera izan du umeen artean?**

— Izugarri ona. Hasieran 3.000 CD ateratu eta estatu osoan banatu ziren, baina berehala saldu ziren guztiak. Orain beste 5.000ko tirada bat ateratu da Gabonetara begira. Gu Durangoko azokan egon ginen teknologia berrien sailean eta han ikusitakoaren arabera, umei asko gustatu zaiela esan dezakegu. Sekulako ume mordoak etortzen zitzaigun egunero ordenagailuarekin jolastera, pentsa, goizeko 10etan azoka noiz ireki zain egoten ziren. Gainera, ez zitzaien ezer azaldu behar, umeek badakitelako nola funtzionatzen duten ordenagailuek. 60 unitate saldu genituen eta CD bakoitzak 4.500 pta. balio duela kontuan izanda, espero genuena baino hobeto saldu zen.

— **Zer aportatu diezaioke CDak umei?**

— Uste dugu umeak literaturaren mundura hurbiltzeko formula onena dela. Umeak ez dira bakarrik eduki literarioetara hurbiltzen, baita ipuinen sorkuntzara ere.

Printze Zoriontsua CDak Moevius Nazioarteko Saria jaso du bere mailagatik

aste gazte

■ BEKAK

• Sustapen Ministeritzak, hezkuntza beka ezberdinak antolatu ditu, astronomia, geofisika, geodesia eta kartografia alorretan, Institutu Geografiko Nazionalean aritzeko. Eskariak bidaltzeko epea: abenduak 30.

• Iberdrola beka: matematika, fisika, kimika eta injenierutza arloetan ikerketak egiteko. Epea: abenduak 31.

• Madrilgo Unibertsitate Konplutenseak, Harvard-eko Unibertsitatearekin elkarturik, ikerketa beka kaleratu ditu, zuzenbide, medikuntza, biokimika, zientziak eta filosofia, politika, historia eta soziologia gaiak jorratuko dituenak. Epea: urtarrilak 10.

■ LANA

• Euskal Herriko Unibertsitateak, hainbat lanpostu kaleratu ditu: a) 6 gestiorako teknikari, b) agiritegi, liburutegi eta museorako 2 langile, d) unibertsitateko gestiorako 2 pertsona, e) 14 agintegi, liburutegi eta museo laguntzaile. Epea: abenduak 30.

• Zallako udalak, 6 klinika laguntzaile behar ditu, “Zallako Eguzki” egoitzan lan egiteko. Epea: abenduak 24.

■ LEHIAKETAK

• Santamasak 96 Argazki Lehiaketa. 3-5 argazki bildumak, zuri beltzean nahiz koloretan. Lanak aurkezteko epea: urtarrilak 9.

• Ipuin lehiaketa (Pasaiako Euskaltegiak deitua). Euskaraz, gai libre. Gutxienez, 5 orrialdeko lanak. Epea: urtarrilak 12.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

Gaztetxean saltoka Def Con Dos taldearekin

Badirudi, puntualitate ez dela gazte hauen bertutea; baina banekien aurretik bar-katurik zeudela. Gaztetxea leporaino zegoen. Hamaketan hasi zen kontzertua bai, baina baita ordubate-tan bukatu ere. Tentsioz beteriko bi ordu igaro genituen. Hasi, nola ez, CD berriari sarrera eta izena ematen dion kantarekin: "ultramemia". Zazpi tipo eskenatokian, saltoka, hegaka.

Malgukiak izango ote dira mutil hauen hankak?

Etengabeko erreper-torio bat eskaini ziguten, ahaztu gabe CD berriaren aurkezpena zela; "Armas pal pueblo", "Acción mutante" edo "El dia de la bestia", ongi etorri pare-gabea izan zuten, baina kontzertu osoan zehar ikuslegoa poltsikoan eduki zuten, Madrilgo raper



hauek... larga vida Def con dos-!!!

Ez nintzen "Back-Stage"-an egon, baina

argazki on batzuk lortu nituen.

E. Allende

Euskaldunak eta Osasuna

Gaztainak

Saso batean gaztainondo ugari egon ei zen Euskal Herrian, baina izurrite handi baten ondorioz desagertu egin ziren gehienak. Dena den, harrez gero, bada landatu dituenik eta ondo asko irten ere. Arrasaten bertan, makina bat baserriren inguruan oraindik ikus daitezke gaztain arbola majoak ere.

Euskaldunaren elikadura oinarri oinarritzkoa izan da gaztaina, egosi-ta jateko lehenengo eta erreta beranduago, lehortzen zenean; dijestiorako hobeak lehenengoak bigarrenak baino. Gainera egur lanetarako ere ondo estimatua da gaztainondoa.

Munduan gaztaina mota asko egon arren, gure artean ezagunenak pagoren familiakoak dira. Osasunari begira, beherakoari aurre egiteko erabiltzen ei ziren sasoi batean: litro bat uretan 60 gramu gaztain orri nahiz azal egosi hamabost minutuz, ondoren azukreaz gozatu eta kitto. Egunean hiru edo lau kateilukada hartzen ziren.

Euskerien Txokoa

"Gau" kontuekin bueltaka

Ondo pasau gauen iaz, eta ondo pasaukou Gabonetako jaixetan"

Gaurko egunean honelakoak entzun daitezke Arrasaten:

"gaur afari bat egingo gau lagunekin", "gose galanta ekarri gauen", "arraina jan gau eguerdian"... OSO TXARTO.

Eta pasatutako erreferentzian: "afari bat egin gauen lagunekin", "gose galanta ekarri gauen iaz", "arraina jan gauen atzo". ONDO

Gaur egin gau, eta atzo egin gauen. GAU hori oso txarto dago, nahiz eta askoren ahotan ohikoena eta zabalduena izan. Jakin dezate-la horiek guztiek oso txarto dagoela, batez be, esaten badaue Arrasateko euskerien ezaugarria dela. Arrasaten beti esan da egin dogu, ekarriko dogu (ahoz: ein dou, ekarriko).

Hikan, barrez: "Ogirik ekarri juau?", "Eingo jonau berba horren gañien"... (Ogirik ekarri do(g)u?,"eingou (egingo dogu) berba horren gañien"...

Baina, behin eta berriro, jende askok gau ebalten dau, do(g)u erabili barik.

Arrasateko euskeran noiz eballi behar dogu "GAU" aditza?.

"Amak gu kalien ikusi gau", edo batuan, "amak gu kalien ikusi gaitu".

Beraz, Arrasaten (gau), batuan (gaitu); berdin ekarri zau - ekarri zaitu.

Gauen: batuan genuen, Aramaion gen, beste batzuk, geben, gefiun, gendu(e)n.

Kontuz! barra-barra gau ebalten dabitzenekin, do(g)u esan beharrean.

Karmelo Uribarren eta
Joxe Ramon Agirreurreta

*Etxe txukuna
txoko kuttuna*

Ehunen ehun lan

Otalora, 22
Tel.: 77 11 48 • ARRASATE

Ehune

Opari aproposak



SIRIMIRI


Zure gustoko arropa!

Zorionak!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE



LENIZ
Garagardotegia
 Zorionak eta
 Urte Berri On!
 Iturriotz, 8
 Tel.: 79 22 29 ARRASATE



KARLOS
Bitxitegia
 Biteri kalea, 13 • ARRASATE
 Tel.: 79 34 26



BITXI LANTEGIA
Zure gustoko bitxiak!
 Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan)
 Tel.: 77 01 44 ARRASATE




ZABALETA
Lurrindegia
Opariak
 Maisu Arano, 2
 ARRASATE Tel.:
 79 12 32



Zorionak eta Urte Berri On!

■ Anuska Ezkurra

GOIKOBALU TXIKIKO ZUZENDARIA




3. **Animalia bihurtzekotan?** Zaldi txuri batean.
4. **Zure akats bat/gauza on bat?** Desordenatua naiz/lzaera zabala dut.
5. **Zerk lotsarazten zaitu?** Euskal Herrian dagoen gorrotoak eta intransigentziak.
6. **Amets bat?** Mundu paketsu batean bizi izatea.
7. **Zer kenduko zenuke mundutik?** Biolentzia eta pobrezia.
8. **Gertakizun historiko bat?** Gizartearentzat onuragarria izan den edozein.
9. **Nor miresten duzu?** Bakearen alde ahotsa altxatzen duen edozein.
10. **Zeri diozu beldurra?** Gaixotasunei eta heriotzari.
11. **Zertaz damutzen zara?** Oso gaztea naiz ezertaz damutzeko.
12. **Negar egin duzun azken aldia?** Ez dakit baina oso negartia naiz.
13. **Zer falta zaio Arrasateri?** Hondartza.
14. **Eta zuri?** Gauza desberdinak ikusi eta ikasteko denbora.
15. **Lanbidez aldatzekotan?** Aktoresa.
16. **Arrasateko gustoko toki bat?** Osoa dut gustoko.
17. **Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?** Logela ordenatzea.
18. **Zein egunkari irakurtzen duzu?** *Diario Vasco*.
19. **Gustoko janari bat?** Piper beteak.
20. **Liburu on bat?** *Malena es un nombre de Tango*.
21. **Filmerik onena/txarrena?** *Memorias de Africa*/ Pelikula italiarrak.
22. **Musika talderik onena/txarrena?** Taldea baino abesti desberdinak ditut gustoko/ *Bacalao* musika.
23. **Telebistako programarik onena/txarrena?** Konkretuki bat ere ez/ *El Semaforo*.
24. **Egin dizuten oparirik politena?** Ustekabean egindakoak.
25. **Denbora librea zertan pasatzen duzu?** Mutilarekin eta musika munduan abesten, zuzentzen...
26. **Oporretarako toki bat?** Laredo.
27. **Etxeko lanik gorrotagarriena?** Zapatak garbitzea.
28. **Gomendio bat?** Momentua aprobetxatu.
29. **Zerbaitegatik emango zenuke bizitza?** Etxekoengatik.
30. **200 milioi irabaziz gero?** Munduan zehar bidaiatuko nuke.

Uztailaren 6an jaio zen orain dela 22 urte. Bere bizitza zenbaki eta partitura artean igarotzen du, Sarrikon Zientzia

Ekonomikoak ikasten ari ez denean, musika eta musiko artean egoten da eta.

1. **Zein da zure horoskopoa?** Cancer.
2. **Sinestuna zara?** Bai.

RUIZ



Lurrindegia • Opariak

Bañez Dokorea, 4 • Tel.: 79 19 94 / Part.: 77 05 74 • ARRASATE

ZORIONAK!



Maalako Errabala, 9

Tel.: 79 50 66 • ARRASATE

URTE BERRI ON LAS HERMANAS

JANTZIDENDA

Bañez Dokorea, 16

Tel.: 79 22 77 • ARRASATE

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5
TEL.: 79 20 52
ARRASATE

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!

BENITO LERTXUNDI (KANTARIA)

“Diskoa landua dela eta”

Arte eta ofizioen ikasketak egin zituen Benito Lertxundik, egurra, eskaiola eta abar landuz. 19 urterekin erloju-konpontzen hasi zen, eskuetan kitarra hartu zuen arte. Artista nobelen sariketa batera aurkeztu, eta ondorioz sartu zen musikagintza munduan. Disko piloa ateratakoa da eta gaur, Santamas Komisioaren eta Senideak taldearen eskutik, Amaia antzokian aurkeztuko du aurten bertan egin duena, “Hitaz oroit” izenburuduna.

- Artista historikotzat eizaukate. Zer erizten diozu?

- Kanta batean agertzen dut hori. Irratia entzuten nengoe-la, kantari historikoei buruzko programa bat egiten ari ziren eta han bota zuten neure izena. Hotzikaratxo bat sentitu nuen hura entzuterakoan, pertsonaia historikoen gainean hitzegiterakoan, eskapartean dauden dekoraziozko figuren bezala hitzegiten da eta. Nolabait horri erantzunez egin nuen kan-

ta. Zer diodan? urte pilo bat egin dugu hontan, *Ez dok amairu* hura ere apur bat historiara pasatu den zerbait da... horren barruan gaude.

- Urte asko disko berri-rik egin barik. Zer dela eta?

- 1980ko udaran lagun bat galdu nuen istripu batean, eta horrekin uda hartako eginkizun guztiak utzi nituen alde batera. Konortea galduta bezala gertatu ginen, eta arrankatzen hasi orduko bilduma bat egin beharra sortu zen; ordura arte izan nituen arazo batzuei ere aritu nintzen konponbidea eman nahian, ahotsa-

rekin etab. baina kantak egiten aritu nintzen, eta horrela pasatu dira urteak.

- Aurreko urteetan ateratako irabaziekin, posible da

hainbeste denbora egotea produktu berriak atera barik?

- Beno, geldirik ez naiz egon, kantaldiak ematen aritu naiz. Horrek ez du esan nahi ixilik egon naizela; disko aldetik bai, ez dudalako atera, baina kantaldiak emateari ez diot utzi, etendurarik ez da egon. Egiten ari nintzen kantak kantaldietan ere erabili ditut eta hori dela medio, aldatuz joan dira.

Pentsatzen dut disko hau egin nezakeela orain hiru urte adibidez, baina ez litzateke disko bera izango. Denboraren poderioz, noski, kantak heldu egiten dira.

- Hitaz oroit nolakoa da?

- Landua dela esango nuke, pentsatua. Estilo aldetik, emisioa aldatu da, tonalitatea... munduan oso homologarria den tonoa hartu dute kantek, heldutasunaren zigilua daramala esango nuke.



“Pentsatzen dut disko hau egin nezakeela orain hiru urte adibidez, baina sekula ez litzateke disko bera izango”

eanngo nuke, pentsatua”

- Diskoaren kantaldi bat entzun dut, fina izan zen, baina tristea. Ados zaude?

- Gai aldetik diskoa tristea dela uste dut. Gertatzen da nik lehendik ere, badudala horren fama. Disko honekin sorpresaren bat edo beste eraman dut, zenbaitek pentsatzen duelako ez dela horrela. Ez dakit bitalista dela edo esan dutelako, besteek baino inpresio gutxiago izan du alde horretatik.

Ez da aupaka ibiltzeko kantaldia, nire estiloa ere ez da hori eta; musikan tristura atsegin dut, barea denean behintzat.

- Arrasatearrek zer entzungo dute gaur?

- Azken diskoa ia osorik,

eta han hemenka beste garai bateko kantuak ere.

- Sentimendu barik, zerbait esateko eduki barik... egin daiteke disko berririk?

- Posible bada. Hau, beste asko bezala lanbide bat da, esateko ezer eduki barik zaila da gauza bat egitea, baina egiten dira. Neuk ez nioke inori gomendatuko. Azkenean gauzak nolahartzen diren da kontua. Bada hor planteamendu bat: merkatuak kontuan hartuko bazaitu urte-

ro disko bat atera behar. Kantagintza apur bat bizitzen lagunduko elementu bat bezala hartuz gero, bizitzen eta heltzen laguntzen duen zerbait bezala... zerbait kanporatzea ezinbestekoa izaten da, bizitzan zerbait ulertu delako edo zerbait jaso delako, eta beste batzuekin konpartitu beharreko sentimentu hori hor egoten da.

- Nolakoa da zure entzulegoa? Belaunaldi desberdin askoren gustoko zara.

- Ez da erraza azaltzen, betidanik adin guztietako entzulegoa eduki dut. Ez dakit zergatik. ■

“Kantagintza bizitzen lagunduko duen elementu bat bezala hartuz gero, ezinbesteko izaten da zerbait kanporatzea”



Denda berria!

Ferrerias Kalea, 28 • ARRASATE

- Oparitarako artikuluak.
- Baxera.
- Aukerako tresneria erreusa.



Orain Aldibi Autoekin



etorkizuna gertuago izango duzu

Orain beste era batean mugitzen hasi zaitezkeelako. Orain, Aldibi Autoekin, bizitzan segurtasun eta erosotasun handiagoz ibiltzeko ideia gehiago izango duzu, eta zuk zeuk ezarritako erritmoan.

Ibilgailu gama zabal batek arazoak oroitzapen txiki bihurtuko ditu. Nissanen milioika gidariren eta euren familien konfiantzak bermatzen gaitu, beste edozerren aurretik ingurugiroa errespetatzen dutenak.

Azken teknologiei esker, gehien behar dituzunean erantzungo dizuten tailer zerbitzua eta ordezeko piezak eskain ditzakegu. Zatoz gu ezagutzera, eta gure profesional adituek merezi duzun bezala hartuko zaituzte.

Azkenean konturatuko zara herrian Aldibi Autoak edukitzea ideia handi bat izan dela, eta zu zeu zara ideia horren parterik garrantzitsuena.

INTERNET: [HTTP://WWW.NISSAN.ES](http://www.nissan.es)

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 / 71 20 02 - 20500 ARRASATE



ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Pisua salgai Donostiako Egia auzoan. Prezio ona. Astegunetan deitu. Tel.: 28 38 52.

• Zigorrolan eraberritutako etxebizitza salgai. Tel.: 77 04 63.

• Aretxabaleko Portasol auzoan pisua salgai. Jantzita. Tel.: 79 78 63 (lan orduetan) eta 79 06 84 (lan ordutik kanpo).

• Aretxabaletako San Migel kalean pisua salgai. Tel.: 79 02 09.

• Etxe bat salgai San Josepen. Tel. 77 08 06.

• Etxe bat salgai Las Malvinasen. Tel. 77 08 06.

• Etxea salgai Elkano kalean. Tel. 77 13 02.

2. Erosi

• Pisu merke bat erosiko nuke Arrasaten. Erguinen edo erdialdetik gertu. Tel.: 79 39 92.

3. Errentan emateko

• Altamiran etxebizitza alokagai. Tel.: 79 26 47.

• Pisua alokagai Munarren. Tel.: 79 77 85.

• Berri berria dagoen baserria alokagai Zarimutzen (Eskoriatza), konpartitzeko ere gertu nago. Tel.: 58 50 17.

GARAJEAK

7. Saldu

• Garaje itxia salgai Zigorrolan. Tel.: 77 04 63.

• Roneoko lehenengo solairuan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

• Roneoko etxeetan garaje itxia eta bikoitza salgai. Tel.: 79 14 66.

• Garage itxia salgai Sofa Leku azpian, Musakolan. Tel.: 77 13 02.

9. Errentan emateko

• Larrea aldean garaje itxia alokatzten da. Tel.: 79 69 41.

• Maala kalean garaje itxia alokagai.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. ARRASATE PRESSEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

Tel.: 79 42 13.

• Garage itxia alokagai Roneon. Dei egin gaez 10etatik aurrera. Tel.: 79 19 64.

LOKALAK

12. Saldu

• Kontsulta amankomuna egiteko lokala salgai. Tel.: 79 06 82 eta 79 46 20.

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel.: 79 28 01.

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m²ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

15. Errentan hartzeko

• Biltegi moduan erabiltzeko 100 m²ko lokal baten bila gabiltza. Kamioi bat sartzeko modukoa izan behar du. Tel.:

77 10 50. Jabi.

16. Bestelakoak

• Erdiko kalean lokal komertziala tras-pasatzen da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 68 77. Esther.

• Titulodun eta esperientziadun neska klase partikularrek emango lituzke, DBHkoei nahiz BUPekoei. Klaseak erdaraz. Tel.: 79 79 84. Kontxi.

• Ingeleseko klase partikularrek emango nituzke. Tel.: 79 03 83.

• Fisioterapeuta diplomaduna etxeko terapiak egiteko gertu: masaiak, erreabilitazioa, drenaje linfatikoa... Tel.: 79 56 86. Ane.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak umeak edo helduak zainduko lituzke. Tel.: 79 34 09. Amaia.

• Esperientziadun neska kamarera

lanetarako gertu. Tel.: 79 61 16.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gaztelerez. Tel.: 77 11 84.

18. Eskaerak

• Neska euskaldun gaztea behar da moda denda baten lan egiteko. Tel: 79 81 82.

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisia, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaeko 10.30etatik aurrera. Fernando.

• Pertsona euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 04 44.

• Musakolan etxean injekzioak jartzeko pertsona bat behar da lehen bailen. Tel.: 79 33 10. Juan.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeles filologian diplomaduna klase partikularrek emateko gertu. Tel: 79 59 16.

• Irakasle titulodunak lehen hezikuntzako eta DBHko klase partikularrek emango lituzke. Dei egin 7etatik aurrera 79 43 56 telefonora.

• EGA titulodun irakasle batek LH, DBH eta REMeko klase partikularrek emango lituzke. Dei egin 7etatik aurrera 79 43 56 telefonora.

• Klase partikularrek ematen dira. Tel.: 79 98 68 eta 79 40 57.

• Magisteritzako irakasle batek klase partikularrek ematen ditu. Tel.: 79 52 31.

21. Eskaerak

• Marrazki geometrikoko klase partikularrek hartuko nituzke. Tel.: 79 83 33.

• Alemanezko klase partikularrek hartuko nituzke. Tel.: 71 48 90.

MOTORRA

23. Saldu

• Opel Corsa GT autoa salgai. ITV pasatu berria. SS-AF. Tel.: 79 32 87. Ruben.

• F-6 Renault furgoneta salgai. 130.000 pta. Negoziagarria. Tel.: 79 03 45.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deitu-ko dizut.

DENETARIK

26. Saldu

• 28 mm.ko objetiboa salgai. 8.000 pta. Tel.: 79 05 64.

• Sukaldea salgai. 10.000 pta. Dei egin denda orduetan 79 23 40 telefonora.

• Pinu egurrezko 10 ate salgai prezio onean. Tel.: 79 23 97. Rafael.

• Fagor markako kalentadorea eta berogailu japoniar bat salgai. Tel.: 79

81 25. Gaez dei egin.

• Gela handiak berotzeko gai den akumuladore elektrikoa salgai. Tel.: 79 23 06.

• Mendiko trabesiako botak salgai. Dashstein markakoak. 38 zerbaki-koak. Tel.: 79 32 98. Gaez.

• Mendiko elurretako plastikozko botak salgai. AFS 101 Carboni Fiber-Asolo (39. zenb.) eta AFS 102 Fiber-Glass (44. zenb.). Tel.: 79 22 99. Gaez.

• Neskatilendako bizikleta tolesgarria eta 8-12 urte bitartekoendako liburu sorta oso merke salgai. Tel.: 79 82 47.

• Goi kargako garbigailua salgai. Tel.: 77 05 77.

• Kerosenozko berogailu japoniarra salgai. Tel.: 79 03 67.

• Tabako makina salgai. Harremanetarako: Jai-Zale taberna. Tel.: 79 67 92.

• Egongelako altzariak, egoera onean, salgai. Prezioa negoziatzeko. Tel. 79 01 33 edo 989-76 49 66.

• Astrajolas ordenagailua salgai, 100 jolasekin, oso merke. Tel. 79 34 79.

• Egongela eta jangelako altzariak saltzen ditut. Zumezkoak dira eta egoera onean daude. Tel.: 79 71 35. Gaez.

27. Erosi

• Bigarren eskuko baxua eta aplikadorea erosiko nituzke. Tel.: 79 53 42. Jabi.

• Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44 50 05.

• Auto barruan umea eramateko aukitxo erosiko nuke. Gaueko Setatik aurrera. Tel.: 79 23 69.

• Kitarra elektrikoa eta aplikagailua erosiko nituzke. Tel.: 74 37 23.

31. Galdu

• Ostantz tabernan aterkina aldatu zidaten, estanpatua da. Tel.: 79 72 61.

• Astelehenean Hiper Eroski inguruan urrezko pultsera galdu nuen. Urre gorri, zuri eta larukoa. Tel.: 79 67 52.

• Iraileko lehenengo astean kartera txiki batean eratzuna galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 79 15

24 telefonora. Eskertuko da.

• Abenduaren 17an urrezko hiru pultsera galdu nituen Biteri aparkalekuan. Tel: 76 51 67. Eskertuko da.

32. Aurkitu

• Azaroaren 16an Astore markako polo urdina topatu genuen Iturripen. Tel.: 79 91 22. Gaez.

33. Bestelakoak

• Ipuin pertsonalizatuak egiten ditut nahi den hizkuntzan. Umeendako opari paregabea! Tel.: 79 47 54.


HARREMANAK

34. Agurrak


• Zorionak Ana! Egun hau inoiz ahaztu ez dezazun. (Zure lagunak). JOLA-MARUSA.

• Zorionak Maritxu zure Txoronpio eta Txoronpia guztien partetik.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETA

TITARE

Zorionak eta Uste Berri On!



Lentzeria Kortsetegia Bainujantziak

Olarte kalea, 6 • Tel.: 77 10 16 • ARRASATE

Altzariak Diseinua Apainketa **ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

Memesa

79 42 22



1946-1996

Zatoz gurekin
50.urteurrena ospatzera
Oparitxo bat dugu zuretzat.

Beatriz

oinetakoak

Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 79 14 33



Udazken eta neguko
PAYOT makilaia.

Jai zoriontsuak izan!



Edertasuna nigan dago.

Zerkaosteta, 5 • ARRASATE • Tel.: 79 28 85



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

Gabonetan
ondo pasatu nahi baduzue...
joan edozein tokira.

Baina, izugarri ondo pasatu
nahi baduzue... etorri "BAR"
BAR GARIBAI 5.

Yoa'z
oinetakoak

Zorionak eta
Urte Berri On!

Biteri, 13
Tel.: 79 21 71
ARRASATE

Barrenkale, 9
Tel.: 76 22 86
BERGARA



AREITIO

Kirolzalea bazara

zatoz AREITIO KIROLAKera

*Jai zoriontsuak eta
Urte Berri On!*

Zarugalde, 35
ARRASATE
Tel.: 79 38 38

*Santamasetako
kaferik
goxoena!*

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea ARRASATE Tel.: 77 03 62



**Eguberri
ON!**

Kabia
ALTZARIAK



**Erreformagatik guztia merke
baino merkeago!**

Prezio sinestezinak!

Aukera aparta!

**Zatoz
ikustera!**

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 79 27 70

Kaferako Kantak

Pello Joxepe

Pello Joxepe tabernan dala
haurra jaio da Larraulen.
Etxera joanda, esan omen du:
— Ez da nire izanen.
Ama horrek berak topa dezala
haur horrek aita zein duen.

— Ai, hau pena ta pesadonbrea,
senarrak haurra ukatu!
Haurtxo honentzat beste jaberik
ezin liteke topatu.
Pello Joxepe, bihotz nerea,
haur horrek aita zu zaitu.

— Fortunosoan nintzela baina
ni naiz fortuna gabea.
Abade batek eraman dizkit
umea eta andrea.
Haurra bere bazuen ere,
andrea nuen nerea

Txantxibirin

Txantxibirin, txantxibirin
genbiltzanean,
Elorrioko kalean,
hamalau atso tronpeta jotzen
zazpi astoren gainean.
Astoak ziren
txiki-txikiak,
atsoak berriz
kristonak.
Nola demontre konpontzen ziren
zazpi astoren gainean?

Itsasoa laño dago

Itsaso laño dago,
Baionako barraraino.
Nik zu zaitut maiteago
txoriek beren umeak baino.

Gure oroiz aita dago,
lainopean gaueraino.
Nik zu zaitut maiteago
arraitxoek ura baino.

Iturengo arotza

Iturengo arotza, Erramun Joakin,
haserre omen zaude zeren dugun jakin.
Santurik ez laiteke fiatu zurekin,
San Kristobal urtu ta joareak egin.

Arotzak erran dio bere andreari:
— Urtu behar dinagu, ekarran santu hori.
— Gizona, hago isilik! Bekatu duk hori.
— Ez zionagu erranen sekulan inori.

Arotzak erran dio bere andreari:
— Begira zaion ongi joare multzoari
soinuan bilatu ta denak zeuden ongi,
salatu ez bagindu koinatak, Joana Mari...

Kobrezko santurikan inon bazarete,
egoten ahal zarete hemendik aparte,
bertzenaz arotz horiek jakiten badute,
joareak eiteko urtuko zaituzte.

Katuen testamentua

Hil da, hil da
gure katua,
egin, egin dau
testamentua:
amumantzako, amumantzako
hankak eta burua,
aitittendako, aitittendako
abarkak egiteko narrua.
Mantxonintzako, Mantxonintzako
tripa barrua,
horixe dala, horixe dala
katuan testamentua.

Mundua hankaz gora

Aspaldi batean Saint George mendira
traskil talde bat heldu zen borondatea
azaltzera
lur jabe ta lege oro desafiatuz
deus etzeukatenak eurenak eskatuz.

Pakean gatoz zioten lurra lantzera
lur idor hau ereitera guztion artean
lur zatitu hau batuko dugu
guztiontzako altxorra izan dadin.

Propietatea mespretxatzen dugu
inork ez du eskubiderik lurra saldu ta
erosteko
odolez ziguten lurra kendu
orain hormak jasoz euren agindupean.

Beraiek legeak gu lotzeko
eleiza zerua eskaintzen bestela inpernura
eztugu gurtuko euren jainkorik!
aberatsen lagun pöbreen ahiduran.

Lan jan elkarrekin ez dugu ezpatarik behar
ezkara makurtuko ezta zergarik ordainduko
nahiz behartsu izan askeak gara
zutik jornalariok! gure ordua da.

Lur haundidunek eskatuta
heldu ziren soldaduak eskaerak ezabatzeko
arto ta etxolak deusezteko
beraien irudia baino ez usteko.

Pobreok kemena aberatsok kontuz!
lurra ororentzat egin zen denok elkarba-
natzeko
oro ororena denok elkarrekin
pakean gatoz ta akatu zituzten
pakean gatoz ta akatu zituzten
pakean gatoz ta akatu zituzten.



Mari Andresan korotza

Mari Andresan
Mari Andresan
korotza,
zazpi libra ta
zazpi libra ta
bost ontza.
Harek egiten dau
harek egiten dau
demasa:
epel-epel,
lodi-lodi,
punta motza,
epel-epel,
lodi-lodi,
punta motza.

Azken dantza hau

Azken dantza hau,
maitia, zurekin...
nahi zinduket
eraman nerekin...
baina, gaurko xedia
ezin daike betia!...
badakit, nik ere,
bihar dela joaitea!...

Bego pena hau!
Itzuliren naiz
bai! Berriz Euskal Herrirat!
bego urte hau!
etorriko naiz
betikotz zure ondorat!...

Azken dantza hau,
ez da sekulako...
zin egina dut,
zin egin betiko,
hemen, gure lurrean
bizi behar dutala!
hori ez bada,
hil hotz jar nadila!...

Greziako itsasontzia

Itxaso gaindi ikusten baduzu
gure gogoa daraman ontzia,
etzazu pentsa galduta doanik,
argitzen baitu goizeko eguzkiak.

Hainbeste amets, negar ta desio
ez du ekaitzak hondora botako,
salbatuko da goizeko ontzia
kaiaren bila hegaka joateko.

Arraun berriek eramango dute
bide zaharretik askatasunera,
oihal zuriek haizea bildurik
gure arnasa biltzen den batera.

Ez du ekaitzak hondora botako,
salbatuko da goizeko ontzia.

Ixil ixilik doa...

Ixil ixilik doa itsaso gainean
untzi txuri polita hegalak airean...
furrust farrast kantatzen uhainek ondoan
mariñela gogoeta etxea gogoan....

Untzi txuri polita badoa eztiki
itsaso legunean lerratzen aiseki...
iguzkiak gainetik irriten goxoki
oi zer eztitasuna! zoin den xoragarri!

Oriko xoria

Jende gaztia dabila
etxetik urrun lanila...
ez erran galdurik dela,
itzul daiteke berehala...
Jin bedi gure artila
Oriko xoria, Orira!
Xorittuaren hegalak
arin aidia bezala...
gaztek begira dezala
azkar euskaldun odola!
Xoriak jiten zauzkula
huts egin gabe sekula...
lehenik bat, gero mila,
xortak egiten ixtila...
Xoria izan dadila
euskaldun gazten mudela!
mutiko ta neskatila,
ziauzte denak sor-lekila!

Herribehera

Herribehera, Herribehera
zure landen zabalera
hortzi muga den hartan mugatzen da.

Zure lur emankorretan
ixurtzen diren asmoak
gogotsu hartuko al ditu lur gozoak?

Zure gaztelu zaharrek
gorderik duten aintzina
hats tristeetan mintzo da haren mina.

Horma, zahar arrailduetan
txoriak dira kantatzen,
mendetako lo geldia salatzen.

Nafarra anai zaharra
kondairaren lehen sustarra
bego higan arbasoen amets hura.

Jaun baruak

Jaun baruak aspaldin xederak hedatu
zūtin,
txori eijer bat hatzaman dizū Paubeko
seroren komentin,
orai harekin biziren dūzū aspaldian
gogun beitzin.

Xedera balitz halako merkatietan saltzeko,
Ziberuako aitunen semek eros litzazkie oro,
halako txori eijerto zunbaiten hatzamaiteko.

Igaran apirilaren bürrian, armadaren
erdian,
züntüdan bihotzian, armak oro eskian;
present espiritüan, manka besuen artian.

Jauna maite banaizü, erraiten dūzün
bezala,
kita ezazü, kita ezazü Erregeren zerbützüa
eta maita herria, üken dezadan plazera.



Mendian larrartean

Mendian larrartean
arkitzen da loretxo bat
aurrean umetxo bat
loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio
umetxo, aska nazazu,
jaio naiz libre izateko
ta ez loturik egoteko.

Umetxoak ikusirik,
lorea ezin bizirik,
arantzak kendu nahi dizkio
bizi berri bat eman.

Orduan izango baitu
indarra eta kemena
orduan emango baitu
ugari bere frutua.

Olentzero buru handia

Olentzero buru handia
entendimenduz jantzia,
bart arratsean edan omen du
amararruko zahagia.
Ai, urde tripa handia, tranlaralala,
tranlaralala.
Ai, urde tripa handia, tranlaralala,
tranlaralala.

Birjiña maite

Birjiña maite,
lotan dago
zure seme laztana;
seaskatxoan ipini zazu
gure bihotzen kutuna.

Ongi bai ongi
igaro ditzan
gaua eta eguna,
poliki poliki
eragiozu
egin dezan lo ona.

Zeru goi goitik
gugana dator
gure Jesus laztana,
lasterka lasterka
goazen kristauok,
gure Jaunarengana.

Ai! au gauaren zoragarria

Ai! hau gauaren zoragarria
Jesus jaio da Belenen
herririk herri bila gabiltza,
bila gabiltza beraren.

Aingeruak kanta,
artzai onak dantzak,
guztiok alabantza
zuri zor dizugu.

Astoak A,
Idiak Mu,
atseginik badegu.

Hartu makila eta
jantzi abarkak,
artzaiak joan dirade
Jesusen bila.

Ai! zer atsegina den
dantzan jende guztia,
saltoka, brinko eginik
danak joan ziren.

Mesias sarritan

Mesias sarritan agindu zana,
aingeru artian dator gugana.
Mesias sarritan agindu zana,
aingeru artian dator gugana.
Gloria zeruan pakea hemen,
kantari aingeruak dagoz Belenen.
Kantari aingeruak dagoz Belenen.

Elurra mara mara

Elurra mara mara ari da,
zuritu du mendia,
arditxoak sartu dira
hotz hotzez,
txabol txabol zaharrean.

Lastozko zubixe

Jontxuk egin ei eban,
lastozko zubia,
handixek pasateko
Loretxu txikia.

Hasi zen pasaten da
jausi zen zubia,
Jontxuk hartu ei eban
sentimendu handia.

Lorek egin ei eban,
lastozko zubia,
handixek pasateko
Adolfo txikia...



ATBn Gabonetako programazioa

Abenduak 23 ASTELEHENA

20/20.30/21.00

Berriak

21.30

Santamasak 96

Astelehenean, informatiboaren ondoren, Santamas egunean jasotako guztia programa berezi batean eskeiniko da ATBn. Domekan zehar izan diren ekintzak, azoka, tarogileak, kaleko giroa, artisau feria, sari banaketak, kaleko inkestak, txerria... hori guztia eta gehiago gaueko 9.30etan.



Abenduak 24 GABON BEZPERA

13.30

**Santamasak 96
(Errep.)**

19.15

Kukaratxa Motel Berezia

Urteko azken Kukaratxa Motel izango da 24koa, Gabon bezperan. Unai, Betirtzek eta Agustinek sekulako programa prestatu ei dute. Besteak beste, "Kukaratxa Motel Berpiztea" bideoa nola egin zuten azalduko du hirokoteak eta toma faltsuak ikusi ahal izango dira. Bideo horrek Lekeitioko XIX. Euskal Zinema eta Bideo Lehiaketan bigarren saria irabazi berri du eta horregatik horren arrakasta handia izan duen bideoa nola egin zuten, erabilitako trukoak, efektuak, hilkutxaren jatorria, umeen *kastinga* eta beste gauza asko erakutsiko dute. Horrez gain, lehiaketan proba bereziak egongo dira eta Goenkaleko pertsonaia bat etorriko da platora.

20/20.30

Berriak

Abenduak 26 OSTEGUNA

19.15

**Kukaratxa Motel Berezia
(Errep.)**


20/20.30/21.00

Berriak

21.30

UDA-Mondra Derbya

Abenduaren 24an UDA-Mondra derbya jokatu da Aretxabaletan eta ostegunean Arrasate Telebistan partidua horren jokaldi onenak ikusteko aukera egongo da. Gainera, Andoni Zubizarretari omenaldia egingo zaio partiduan eta ATBko lankideek elkarriketa egingo diote. Horrez gain, derbyan protagonista izan diren jokalarien hitzak ere jasoko dira.



Andoni Zubizarretari omenaldia egingo diote.


Abenduak 27 OSTIRALA

13.30

**UDA-Mondra Derbya
(Errep.)**

20/20.30/21.00

Berriak



Patxi Monterok urtearen errepasoa egingo du.

21.30

URTEBETE

Aurtengo Arrasate Telebistako azken emisioa izango da eta horregatik 96ak ekarri dituen albiste garrantzitsuenak gogora ekarriko ditu Patxi Monterok. Urtariletik abendura, hilez hile ATBn jasotako albisteei errepasoa egingo zaie.

BAKAILO ETXEA



- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializatua
- Bakailo kazoletak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07



Koroak • Ezkontzarako lore sortak
Landareak • Lore gunek

Mondragones kalea, 9 Tel.: 79 12 30 / 79 04 84 ARRASATE

Arrasate Irratiak etxeetara eramango du Santamasetako giroa

Goizeko 10etan hasiko da Arrasate Irratiko emisioa abenduaren 22an. Irratiko hainbat lagun egun horretako leku estrategikoenetan egongo dira bertako albisteak eta txutxumutuak zuzenean etxeetara uhin bidez eramateko, Azoka plazan, Iokin Zaitegi plazan eta Zaldibarren.

Nerea Zubietek, Arrasate Irratiko arduradunak azaldu duenez, zuzeneko emisio horren helburua kaleko eta azokako giroaren erretratu egitea da. Gainera, hainbat elkarriketa interesgarriekin jantziko dute emisio berezia, Maixa eta Itziarri egindako elkarriketarekin eta baita

herriko hainbat dantzari Txerri Dantza eta Larrain Dantzarien gainean egindakoarekin. Emisioa goizeko 10etan hasi eta 12ak aldera amaituko da.

Santamas egunean

Zuzeneko emisioa


Zaldibar, Azoka Plaza eta Iokin Zaitegi plazatik.

FM 107.7an



Etxe Aundi
Hotela**  Jatetxea

Torreauso, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



*Gaur ez bada,
bibar
ezkonduko
zara...
Etxe Aundin
zure zain
gaituzu.*



Santamasak, baina orain urte batzuetakoak. Etxabetarrak agertzen dira argazki batean, bertan Joxe Bixente Etxabe eta Patri Etxabe, artilegintzan; bestean, Jose Antonio Ardanza, orduan herriko alkate zena, azokako sariak banatzen. Sarituak, berriz, Joxe Iturbe Piloto eta Kontxita Berezibar. Argaz-

kietan ikusten da jantziak eta aldatu direla apur bat, baina oinarrian Santamasetan aldaketa gutxi: baserritar giroa kalean, eta urtetik urtera indartuz.

 Urtea: 1982 inguruan.
 Argazkia: Santamas Komisioa
 Informazioa: Santamas Komisioa



MODAREN HIZKUNTZA



Arrasatear guztioi Santamas eta Gabon jai zoriontsuak opa dizuegu!

Erdiko kale, 14 • ARRASATE • Tel.: 79 46 94



ARRASATE ERDIALDEKO
MEREKATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

**Arrasate erdian,
Deba Garaiko merkatalgunerik
handiengan, erosketak izen propioa du.**

Santamas eta Gabon jai zoriontsuak!!



Azaroaren 18tik
urtarrilaren 4ra arte
Arrasate erdiko 100
komertzio eta zerbitzuek
AUTO BAT dohainik
lortzeko aukera ematen
dizute.
Etorri eta egiazta ezazu!!!
Erdialdea bisitatzen duzunean
aparkalekua erabil ezazu.
Denok eskertuko dugu.



TAKOLO AUTOAK



TAKOLO AUTOAK

**Jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu
eta Urte Berri
On!**

TAILERRA ETA ERAKUSKETA


**Araba Etorbidea, 3
(Eskatu pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 79 05 86**

GABON JAI ZORIONTSUAK ARRASASTEAR GUZTIOI!

1997

MAVERICK

4x4




Mugarri deskontuak:
250.000 pta.tik
450.000 pta.ra



Espazioa eta erosotasuna.



Air-Bag.



125 zaldiko Turbo Diesela.

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • Tel.: 79 07 44 / 54 • ARRASATE



*1997a baino lehenago erosi zerga igoeragatik.